

**I. XEDAPEN OROKORRAK****ESTATUKO BURUZAGITZA**

**6732** *3/2013 Lege Organikoa, ekainaren 20koa, kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoa.*

JUAN CARLOS I.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau irakurtzen duten guztiek jakin dezaten.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onartu dutela, eta, Nik, hemen, berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

I

Osasuna babesteko eta kiroleko dopinaren aurkako azaroaren 21eko 7/2006 Lege Organikoa aldarrikatzea dopinaren aurkako borrokaren historiaren funtsezko mugarri bat izan zen gure antolamendu juridikoan. Arau hark xedapen-sistema oso bat jasotzen zuen, eta adierazten zuen dopina babestu beharreko hainbat ondasun juridikori eragiten zien gaitza zela; horien artean kirolarien osasuna, kiroleko joko garbia eta haren dimentsio etikoa zeuden, besteak beste. Arau horretan osasunaren babesarekin lotutako xedapen garrantzitsu batzuk ere bazeuden, legegilearen iritziz orain indartu beharrekoak, aurreko arauak hasitako ildoan sakonduta. Dopinaren arloan hautemandako praktiken bilakaera dela-eta, legezko hainbat aldaketa egin behar dira kirolaren munduari eragiten dion gaitz horri ahalik eta modurik eraginkorrenean aurre egiteko tresnak bermatzearen.

Horri gehitu behar zaio Legean jasotako xedapen batzuk aplikatzeko orduan topatutako zailtasuna; horregatik, ezinbestekoa da finkatutako ildoan aurrera egitea, arauak erregulatzen duen fenomeno aldakor eta bereziki larri horren berezko egoera berriei erantzun arin bat eman ahal izan dakien.

Nazioartean arlo horretan izandako aldaketak direla-eta, orobat, ezin saihests daiteke erreforma horiei heltzea; izan ere, Espainiak konpromiso handia hartu du esparru horretan dopinaren aurkako borrokari dagokionez eta, besteak beste, Unescoren kiroleko dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa berretsi du, Legea aldarrikatu eta hilabete gutxi batzuetara. Hala, dopinaren aurkako borrokan hainbat betebeharrak jartzen dizkie testu horrek berari berretsi duten estatuei; besteak beste, Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen eraginkortasuna bermatu beharra dute estatu kideek. Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren lanaren emaitza da testu hori, baita konbentzioa sinatu dutenek dopinaren aurkako araudia harmonizatze eta nazioartekotzeko etengabeko prozesuaren partaide izateko konpromisoaren adierazpena ere.

Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen azken aldaketa 2009ko urtarrilean egin zen eta, harrez geroztik, hainbat inkongruentzia hauteman dira Espainiako araudiaren eta kodearen xedapen berrien artean. Horren ondorioz, baita aurretik azalduko arrazoiengatik ere, Espainiako araudia Dopinaren Aurkako Munduko Kodea egokitu beharra zegoenez, egoera hori arintzeko lege-arloko hainbat neurri hartu behar ziren.

Horrela bada, kirol-jardunean osasuna babesteari eta dopinaren aurkako lanari aplikatu beharreko esparru juridikoaren beste arautze oso bat jasotzen du testu honek; hala, osasuna babesteko sistema bukatu bat ezartzearen garrantzia nabarmentzen du, arau honen hartzaile nagusiei, edozer kirol-jarduerara egiten duten pertsonen alegia, ikuspegi guztietatik, mesede egitearren.

Argudio horri jarraiki, dopinaren aurkako arau huts batetik askoz haratago doa lege hau. Aitzitik, edozer kirol-jarduerara egiten dutenentzat osasuna babesteko sistema senda

bat jasotzea da legegilearen asmoa, exigentzia fisikoaren mailari eta, hortaz, kirol-jarduerak dakarren arriskuari arreta berezia eskaintzeko, bai eta adingabeek parte hartzen duten kasuei ere.

Halaber, ikuspegi oso batetik taxutu nahi du dopina Lege berriak, kirolarien osasuna babesteko sistemaren barruko gainerako osagaiekin batera, eta, aldi berean, kirolarien osasunaren babesari, kiroleko joko garbiari eta haren dimentsio etikoari berari eragiten dien gaitz modura. Ideia horixe da arautze berria inspiratzen duen funtsezko osagaia; izan ere, haren barruan, garrantzitsuak dira dopinaren aurkako borrokarekin lotutako alderdiak, baina ez dira garrantzi txikiagokoak kirolarien osasunari, kirol-jardunak eragin ditzakeen arriskuen prebentzioari eta botere publikoen ekintza-neurri positiboak ezartzeari dagozkienak, betiere kirol-jarduna baldintza onenekin egitea lortzearen.

## II

Arau berriak irizpide argiak ditu dopinaren aurkako borrokaren arduradunek ahalegina arriskurik handieneko kirol-taldeetara bidera dezaten. Kontua ez da, horrenbestez, kuantitatiboa soilik, kualitatiboa baizik. Arrakasta ez da lortzen dopinaren aurkako borrokan kontrol ugari egiteagatik, haiek ongi planifikatuta eta gauzatuta baizik. Horregatik, hain zuzen ere, ez da hain garrantzitsua kontrolen mende egon behar duten herritarrek asko izatea, horiek zuzen aukeratzea baizik.

Kiroleko osasuna babesteko neurriak, ordea, askoz orokorragoak dira. Neurri batzuk arriskurik handiena duten taldeetara baino ez dira bideratu behar, zalantzarik gabe (dela egiten duten kirol-jardueraren intentsitateagatik, dela horretan aritzen diren kirolarien izaeragatik), baina edozer kirol-jarduera egiten duten biztanleentzako neurri ugari ere badaude araudian; jarduera hori lehiaztekoa izan edo aisia edo osasun hutsagatik egindakoa.

## III

Legearen artikuluen artean, bi kapitulu ditu xedapen orokorrak ezartzen dituen I. tituluak; lehenengoa Legearen aplikazio-eremuari buruzkoa da. Horren bi alderdi berritzaileenak hauexek dira: osasuna babesteko eredu berria eta osasunari zein dopinari aplikatu beharreko neurri berezien aplikazio-eremu desberdindua. Lehen kapituluaren hasieran botere publikoek kirol-jarduneko osasuna babesteko arloan izan beharreko jardunaren aurreikuspena ageri da, eta hainbat definizio jasotzen ditu hauei dagokienez: kiroleko osasunaren babesa, kirol-lizentziadun kiroleko dopina eta kirol-jardun orokorreko dopina.

Osasuna babesteko eta dopinaren aurkako borrokarako administrazio-antolamenduari buruzkoa da II. kapitulua. Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta beste erakunde batzuetako eskumenak zehazten ditu, oro har, kirolarien osasuna babesteari eta, zehazki, dopinari, dagokienez, baita Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia berriari egotzitako eskumenak ere.

Lehen kontuari dagokienez, sistema administrazioen arteko eta kirol-jardunaren eragile gisa jarduten duten erakunde pribatuekiko lankidetzaren bitartez aplikatzeko beharra nabarmentzen du Legeak. Horretaz gain, autonomia-erkidegoen berezko eskumen-esparru osoa onartzen eta errespetatzen du, bereziki autonomia-erkidegoko kirol federatuaren barruko dopinaren aurkako borrokari dagokionez.

Arau berriak, bestalde, protagonismo handiena Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari ematen dio haren aplikazio-eremuan jasotako subjektuei dagokienez, eta ez alderdi teknikoan bakarrik, orain arte bezala, baizik eta plangintzari eta kontrolak egiteari dagokionez ere bai, lehengo sisteman gertatzen ez zena. Ondorioz, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak hartuko ditu bere gain zehatzeko prozeduren izapideak, eta erakunde publikoaren independentzia-erregimena indartuko da, horixe baita interesatuentzako egiazko berme juridikoa agentziak zehatzeko prozeduretan daraman jardunaren gainean.

Sistema berrian ezaugarri paregabe bat du administrazioaren jardunak; izan ere, erakunde publiko bakar batek, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia berriak,

bere baitan bilduko ditu aurreko sistemak hainbat erakunderen artean banatutako eskumenak; horri esker, saihestu egingo dira izan zitezkeen disfuntzioak, eta lagungarria izango da araua interpretatzeko irizpide homogeen eta iraunkorrak ezartzeko, betiere dopinaren aurkako borrokan segurtasun juridikoa handitzeko.

Horrela, Kirol Kontseilu Gorenak kirolarien osasuna babesteari dagokionez orain arte zituen eskumenak bere egingo ditu agentziak. Neurri horrek nabarmen indartuko du agentzia alderdi guztietan eta, arau hau indarrean jarri ostean eginkizun berriak hartutakoan, kirol-jarduneko osasun-babesaren funtsezko erreferente bihurtu beharko du.

Orobat, autonomia-erkidegoek horrela erabakitzen dutenean, haien zehapen-eskumenak bere gain hartu ahal izango ditu agentziak, dagokion lankidetzaz hitzarmena amaitu ondoren; horretaz gain, aurreikusten da Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren organoen artean autonomia-erkidegoekin koordinatzeko organo bat egotea, eta parte-hartze hori kirolariei ere zabaltzea egiturako organo espezifiko baten bitartez. Azkenik, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia arduratuko da oraindik Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekiko elkarlanaz.

#### IV

Legearen II. titulua luzeena da, eta lau kapitulu ditu; lehenengoa dopinari buruzkoa da.

Legegilearen funtsezko kezketako bat Espainiak hartutako nazioarteko konpromisoak bertan biltzea izan da, baita kirolarien xede legitimoei erantzutea ere, haien funtsezko eskubideak eta duintasuna errespetatzeko eskubidea baitute. Horregatik, Legean jasotako sistemak Espainiako legeria egokitu egin nahi du Dopinaren Aurkako Munduko Kodean jasotako dopina zigortzeko formula berezietara; hori ez da beti, baina, hain erraza, joera anglosaxoiko nazioarteko arau bat baita, gureak ez bezalako printzipio batzuetan oinarritua (esate baterako, zortzi urteko preskripzio-epea eta antzeko beste batzuk). Eta egokitze hori sisteman parte hartzen dutenen funtsezko eskubide guztiak errespetatu egin da. Egia da dopina prebenitzeko sistema eraginkor bat ezartzeak batzuetan sakrifizio handia eskatzen duela, baina borrokatu beharreko fenomenoaren larritasunak sakrifizio horiek justifikatzen ditu, eta ez dakarte inola ere kiroleko subjektuen eskubide konstituzionalak urratzea. Horregatik guztiagatik, Dopinaren Aurkako Munduko Kodea gai horretaz arduratzen diren lege-arauak interpretatzeko elementu nagusi gisa egituratu beharra dago; horrenbestez, kodearen manuak, iruzkinak eta printzipioak ikusita ebatzi beharko dira haien aplikazioagatik sor litezkeen zalantzak.

Kapitulu horren eduki espezifikoari dagokionez, aplikazio-eremua nabarmentzen da lehenik; hauek biltzen ditu: Estatu-esparruko lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten Estatu edo autonomiako lizentziadun kirolariak, kirolariaren ingurumaria deitzen dena eta kasu jakin batzuetan Espainian dauden kirolari atzerritarrak. Berritasun garrantzitsu bat da lizentzia lehen eduki duten baina zehatzeko prozedura hasteko unean ez duten kirolariak barnean hartzea, baita benetan egin gabe kirol-jarduna uztea simulatu dutenak ere.

Lehiaketetarako eta lehiaketatik kanporako kontrol motak zehaztu dira eta, azken horien barruan, ustekabeko kontrolak eta aurretiko hitzordua dutenak.

Arlo horretako beste betebeharrak klasiko batzuk ere jaso ditu Legeak, hala nola kirolarien ohiko kokapenaren eta dopinaren kontrol bat egiteko unean jarraitzen ari diren osasun-tratamenduaren inguruan ezarritakoak. Horretaz gain, atzerriko lizentziadun kirolariei, Espainian daudenean, kontrolak egiteko aukera ezartzen du; gure herrialdean egiten diren nazioarteko lehiaketetan egiten diren kontrolak xedatzen ditu, baita dopinaren aurkako nazioarteko erakundeek Espainiako lizentzia duten kirolariei egin ahal dizkietenak ere.

Berritasun esanguratsuak daude 2. atalean. Lehenik eta behin, azken urteotako esperientzia ikusita, dopinaren aurkako kontrolak mediku baten ardurapean egiteko eskaera egokitu egin da (medikuak berak edo behar bezala gaitutako beste osasun-langile batek egin behar dituen); hala, osasun-ekintza jakin batzuk direla-eta medikua egotea ezinbestekoa denean baino ez da eskatuko haren parte-hartzea (adibidez, kirolariari odola ateratzen dioten kontroletan). Kirolariei gerneru-laginak baino hartzen ez zaizkien kontroletan, horrenbestez, ez da beharrezkoa izango. Aipatutako ekintza horren izaeragatik beragatik ez da ezinbestekoa era horretako pertsonen parte hartzea eta,

ondorioz, behar bezala gaitutako langileek egin ahal izango dute, medikuak izan ez arren. Nolanahi ere, haien jardueran ezagut dezaketen edozer informazio edo datu isilpean gordetzeko beharrari dagokionez, informazio horiek sekretupean izateko betebeharrak espezifikoa ezarri da, gaitutako langile guztiek betebeharrak profesional berak izan ditzaten; halaber, zehapen-araubide bat ere taxutu da, betebeharrak hori urratzen duten kasuetarako.

Bigarrenik, Legearen arabera, ezin izango da kontrolak egin gaueko hamaiketarik goizeko seiak arte. Neurri horrek kirolarien segurtasun juridikoa sendotzen du, eta gaueko atseden eta intimitatea bermatzen ditu. Halere, Dopinaren Aurkako Munduko Kodeak xedatzen duenaren ildotik, araua ezin da izan erregimen hori salbuespeneko kasuetan aldatzea eragozteko bezain zurruna. Horregatik, kodearen arabera eta beharrezko bermeak edukita, kontrolak egin ahal izango dira ordutegi horretatik kanpo, behar bezala justifikatutako kasuetan; horrenbestez, kirolarien eskubide legitimoen babesaren eta dopinaren aurka borrokatzeko arau juridikoen beharrezko eraginkortasunaren arteko koordinazio egokia izan beharko du justifikazio horrek, neurriaren proportzionaltasun-printzipioa betez, betiere.

Azkenik, kirolariei eragiten dieten betebeharrak nagusien barruan, kontrolak nahitaez onartzeko betebeharrak jaso da. Betebeharrak hori gorabehera, ordea, eskubide batzuk ere badituzte kirolariak: besteak beste, kontrolaren jakinarazpena jasotzeko eskubidea, dagozkien eskubideen, betebeharrak eta prozeduraren funtsezko izapideen berri jasotzekoa eta datuak babestekoa. Eskubide horiek Legean ezarritako sistemaren funtsezko elementu dira, eta Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak berak zaindu behar du behar bezala betetzen direla.

Betebeharrak osagarriak dagokienez, osasun-tratamenduen erregistro-liburuari buruzkoa da garrantzitsua; berme bat izango baita kirolarientzat zein artatu ohi dituzten osasun-profesionalentzat.

Atal hau amaitzeko erabilera terapeutikoko baimenen erregulazioa dago; horiek dagokienez, kirolariari era horretako baimen bat edukitzea ahalbidetuko dio sistemak, eta behar den bezala baimenduta dituen dopin-produktuak erabiltzeari buruzko diziplinazko erantzukizunetik salbuetsita geldituko da. Baimenok emateko eskudunak diren dopinaren aurkako erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzeko komunikazio-sistema bat ezartzen du Legeak, halaber.

3. atalak funtsezko hiru kontu arautzen ditu. Osasunaren kontrolak eta dopin-kontrolak definizioari buruzkoa da lehenengoa; hala, bi figura horiek argi eta garbi bereizten saiatzen da, hainbat arau eragin duten nahasmena saihestearren.

Bigarrenik, kontrolak plangintza zein horiek egiteko eskumenen definizioa jasotzen ditu atal honek. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari zehatzeko eskumena, oro har, ematearekin bat etorrira, erakunde publiko horren esku ere egongo da kontrolak planifikatzea eta gauzatzea.

Arauan xedatutako hainbat elementuren bidez, agentziak kirol-modalitate bakoitzaren gorabeheretara egokitu ahal izango du plangintza, betiere horietan aritzen diren kirolariak prestatzen duten lehiaketa mota kontuan harturik. Plangintzaren prestaketan kirol-federazioek laguntzea ere aurreikusita dago, baina ez haren definizioan eta ondorengo ezagutzan; orobat, Kirol Kontseilu Gorenarekin lankidetzaren mekanismo bat ezarri da, lan horretan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzearren.

Puntu horretan, Legearen beste berritasun bat da Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren zuzendariak Estatuko lizentzia duten kirolariei, plangintzatik kanpo, kontrol bereziak agintzeko aukera duela. Plangintza isilpekoa izango da, eta ezin izango da argitaratu edo zabaldu; betebeharrak hori urratzea Legeari jarraiki zigor daitekeen arau-haustea da.

V

II. titulu horren II. kapitulua Legearen luzeena da, eta dopinaren arloko zehapen-araubideari buruzkoa da, hain zuzen. Hiru atal ditu; kirolariaren erantzukizunari, arau-hausteei, zehapenei eta erantzukizuna zehazteko araubideari buruzkoa da lehenengoa, eta Legearen egiazko zehapen-nukleoa da. Berritasun nagusietan, lehenik, Legean

azaldutako erantzukizunei lotzeko araubidea zuzendu izana nabarmendu beharra dago, bai kirolariari bai haren inguruneari dagokienez.

Bigarrenik, dopinaren aurkako legearen arau-hausteen tipifikazioa ezarri da, Dopinaren Aurkako Munduko Kodean xedatutakora egokitzeko. Puntu espezifiko horretan, Estatu Kontseiluaren jarreraren ildotik, arau-hauste moten idazketa hobetu beharra zegoen, bereziki bi gai hauei dagokienez: saiakuntzei buruz, orain modu sistematikoan deskribaturik, eta proba baloratzeko irizpideei buruz, arau-hauste moten definizioaren barruan jasota. Alderdi horri dagokionez, ahalegina egin da hori arau-hausteen kasuan gerta ez dadin; halere, gai espezifikoak agertzeari dagokion arau-hausteari eta haiek erabiltzeari zein kontsumitzeari, edo edukitzeari, dagokienez, arau-hauste oso larrietatik bereizteko elementutzat jo da kirolariak alderdi jakin batzuk frogatzea, Dopinaren Aurkako Munduko Kodean xedatutakoaren ildotik. Gainera, beste berritasun bat da arau-hauste mota berri bat erantsi dela plangintzaren isilpekotasunarekin lotutako betebeharrak urratzeari dagokienez.

Zehapenei buruzko araubideari dagokionez, kirolariei ezarri beharrekoak eta kirolariaren inguruneari ezarriko zaizkionak bereizi behar dira. Lehen arau-hausteari buruzko araubidea leundu egin da apur bat lehenengoetan, baina gogortu egin da bigarren eta ondorengo arau-hausteei dagokienez. Dopinaren Aurkako Munduko Kodean jasotako zehapen-araubidea egokitzearen arazoetako bat zen, hain zuzen, zehapen-araubideak bigarren edo ondorengo arau-hausteen kasuan arautu beharreko manua konplexua dela. Estatu Kontseiluak nabarmendutako konplexutasun hori dela-eta, gai hori Dopinaren Aurkako Munduko Kodean jasotako irizpideetara igortzea erabaki da, Legearen testua ulertzen zailagoa izan ez dadin. Legearen II. eranskinean jasotako koadro argigarri batek osatzen du igorpen hori; zehapen-organoek sistema konplexu hori egoki aplikatu ahal izango dute horri esker.

Kirolariaren inguruneari ezarritako zehapenei dagokienez (direla klubei eta kirol-taldeei, direla teknikari, epaile, arbitro, zuzendaritzako kide edo kirol-erakundeetako gainerako langileei, direla kirol-erakundeetako medikuei eta osasun-langileei), gogortu egingo dira diruzko zehapenak, eta, lizentzia indargabetzea, berriz, nazioarteko araudiak xedatutakora egokituko da. Legean tipifikatutako arau-hausteak federazioaren lizentziarik edo gaikuntzarik eduki gabe egiten dituzten pertsonentzat xedapen berezi bat erantsi da, eta ohikoez bestelako neurri batzuk ere gehitu dira kasu horretan daudela arau-hauste oso larriak egiten dituztenek kontratuaren fede ona urratu dutela jotzeko; hala, horrelako kasuetan kidego profesionalei jakinarazi ahal izango zaie, ondorio egokiak izan daitezten.

27. artikuluan dopinaren arloko zehapenak ezartzeko irizpideen beste idazketa bat dago jasota. Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen manuak sistematizatuta, hainbat irizpide orokor klasiko ezarri dira administrazio-eskubide zehatzailean; irizpide horien osagarri, diziplinazko erantzukizunaren hainbat salbuesgarri, aringarri eta astungarri egongo dira. Arauak, orobat, haietako bakoitza aplikatzeak ekarritako zehapen-ondorioak xedatzen ditu. Gainera, nahasmena eragin duten bi kontzeptu bereizten ditu Legeak; hala, dopinaren aurkako arauak urratzea dakarten portaerak behin eta berriz egitea hartzen du inguruabar astungarritzat, eta berrerrortzea, berriz, zortzi urteko epean bigarren edo horren osteko arau-hauste bat egitea; hala, kasu bakoitzak dagozkion zehapen-ondorioak izango ditu.

Diruzko zehapenei eta emaitzak indargabetzeari buruzko xedapenak ere badaude Legean, bestalde, dopinaren aurkako eraginkortasunaren ondoriozko eskaerak aintzat hartuta. Lehiaketen emaitzak indargabetzeko aukera ere jaso da azken puntu horretan, baita arau-hauste motan azaldutako portaerak dagokion zehapenik ez dakarren kasuan ere; izan ere, portaera horrek lehiaketen emaitzetan eragina izan dezakeela jotzen da. Justiziazko neurri bat da, edozer zehapen motatik kanpokoa, kirol-lehiaketen emaitzaren garbitasuna zaintzearren.

Zehapenen berezko ondorio gisa, arau espezifiko bat ezarri da, gogora ekartzeko Legean xedatutako edozer zehapen ezartzeak ezinezko egiten duela kirol-lizentziaren ondoriozko eskubideak eskuratzea edo erabiltzea.



Dopinaren Aurkako Munduko Kodeak xedatutako ebazpenak aitortzeko sistema aplikatzen du Legeak, baina, berritasun gisa, aukera dago Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak ebazpen horiek ez aitortzeko, baldin eta Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen printzipioen aurkakoak badira edo eskumenik ez duen organo batek eman baditu. Era berean, Prozedura Zibilari buruzko Legearen 955. artikulura igortzen da atzerriko epaiak eta laudoak aitortzeari eta gauzatzeari dagokienez. Azkenik, legegileari luzaro eskatutako arau bat ezarri da; arau-hausleen kirol-jarduerarekin lotutako finantza-laguntza edo laguntza publikoak kentzeko aukera, alegia.

Atal horren barruan arauaren beste berritasun garrantzitsu bat dago, 33. artikuluan; hala, agintari judizialen laguntzari buruzko errubrikarekin, lankidetzeta-sistema bat diseinatzen du artikulua horrek, Zigor Kodearen 361 bis artikuluan ezarritako delitua egitearen ondoriozko zigor-prozedurak bideratzeko agintari judizial eskudunen eta dopinaren arloko zehapen-prozedurak izapidetzeaz arduratzen diren administrazio-agintarien artekoa.

Tipo penalaren eta administrazioko zehapen-tipoaren arteko ganorazko berdintasunik egon daitekeen kasuak debekatutako substantzien administrazio edo trafikoko kasuak baino ez badira ere, funtsezko bi ondorio lortzen zituen sistema bat ezarri beharra zegoen: batetik, *ne bis in idem* printzipioa egoki errespetatzea eta jurisdikzio penala lehenestea, eta, bestetik, Dopinaren Aurkako Munduko Kodeak eskatutako ondorioa lortzea, kodean azaldutako dopin-arloko arau-hauste bat egitea zigortzen duen agintaria edozer dela ere, hark ezarritako ondorioak izan ditzan. Bi helburuok lortzearren, Legeak diseinatutako sistemak, independentzia judiziala erabat errespetaturik, aukera ematen dio instrukzio-epaileari Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari irizpen bat eska diezaion, hark, horren bitartez, debekatutako gaiak edo metodoak eman zaizkien kirolarien osasunean edo bizitzan arriskurik dagoen jakinaraz dezan. Horrek bereizten ditu, hain zuzen, tipo penala eta arau-haustea kasu horietan. Txostena egin ondoren, instrukzio-epaileak erabaki ahal izango du zigor-arloko prozeduraren instrukzioa jarraitu behar den. Jarraitzea ez dela egokia erabakiz gero, largespen libreko autoan frogatutzat jotako gertaerak lotesleak izango dira administrazioarentzat, zehatzeko prozedurak jarraitzearen ondorioetarako.

Horretaz gain, zehatzeko prozedurak izapidetzeko beharrezko izan daitezkeen froga-elementuak, autoetan jasotakoak, emateko eskatu ahal izango dio instrukzio-epaileari edonoiz. Nolanahi ere, arrazoituta eta proportzionaltasun-printzipioa haztatu ondoren emango ditu froga horiek agintari judizialak, betiere Konstituzio Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak puntu horretan hartutako erabakiak egoki errespetatzearen.

Epaileak prozesu penalaren izapideak jarraitu behar dituela ebatziz gero, subjektu, egitate eta oinarri berdina duten zehapen-prozeduren izapideak eten beharko ditu Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak. Nolanahi ere, prozedura penala hasi zaien pertsonen federazioaren lizentzia indargabetzea erabaki ahal izango du agentziak prozedurok etetea erabaki aurretik; betiere interesdunari entzun ondoren, eta bidezkoa bada nazioarteko arauarekin eta gaia arautzen duen legearekin bat etorritik. Instrukzio-epaileak, delituaren zantzurik egoteagatik, izapidetzea jarraitu behar duela jotzeak justifikatzen du neurri hori.

Azkenik, agintari judizialak, ofizioz edo Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak eskatuta, dagokion erruduntasun-testigantza deduzitu ahal izango du, dopin-arloko administrazioko arau-haustek izan litezkeela ikusiz gero.

Dopinaren Aurkako Munduko Kodeak eskatutako ondorioa lortzearren, bestalde, Kode Penalaren 361 bis artikuluan ezarritako delitua egiteagatik zigortzeak, delituari lotutako ondorio gisa, federazioaren lizentziaren ondoriozko eskubideak ezin erabiltzea ekarriko du, egindakoa administrazioko arau-hauste huts bat izan balitz xedatuko litzatekeen aldiaz.

Dopinaren arloko zehapenak ezartzeko prozedurari dagokionez, diziplinazko prozedurak izapidetzeko eskumenaren definizio berri bat xedatu da. Nazioarteko esparruko kirol-erakundeen nazioarteko arauarekin koordinazio egokia lortzearren, argi eta garbi bereizi dira lege honen aplikazio-esparruari lotutako kirolariak eta nazioarteko

federazioek edo erakundeek nazioarteko mailako kirolaritzat ofizialki hartutakoak. Azken horiei dagokienez, zehatzeko eskumenik ez du Agentziak, hori nazioarteko federazioena edo Espainiako federazioena izango baita, betiere Agentziak ez badu hitzarmen egokirik sinatu haiekin.

Sistema hori, hainbat herrialdetan dagoenaren antzekoa (Britainia Handian, esaterako), nazioarteko federazioek xedatzen duten moduan zehaztuko da; hala, nazioarteko federazioei lehiaketa-arauak ez inposatzeko ezarri da, baita haiek beren sistema, azken batean, finka dezaten ere. Azken kasu horretan, halaber, aplikatu beharreko araudia dagokien nazioarteko federazioena izango da, Dopinaren Aurkako Munduko Kodea normalean.

Prozedurari dagokionez, bestalde, 38. artikuluan xedatutako behin-behineko neurriez gain, prozedura berezi bat ere finkatu da, hainbat berritasun erantsita. Zehatzeko prozedurak hasteko sistema hobetu izana da lehenengo berritasuna. Horri hainbat elementu gaineratu behar zaizkio, hala nola froga-sistemaren beste konfigurazio bat (Espainiako antolamendu juridikora gehiago egokituta), diziplinazko erantzukizunaren kalifikazio egoki bat (erantzukizun objektibotzat hartzen duten erabaki doktrinaletatik aldentuta), eta Dopinaren Aurkako Munduko Kodean ezarritako presuntzio jakin batzuk, xedetzat dopinaren aurka borrokatzeko sistemaren eraginkortasuna bermatzea dutenak.

3. atalari dagokionez, kiroleko dopinaren arloko administrazio-errekurtso bereziarekin lotutako arauak daude bertan. Berezkoa ez den gora jotzeko errekurtsio bat da, eta Kirolaren Administrazio Auzitegi berriaren aurrean izapidetuko da. Errekurtsioari dagokionez, berritasunik esanguratsuena hauxe da: zehaztasun handiagoa errekurritu daitezkeen ebazpenei dagokienez eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren arauak berak, errekurritzeko zilegitasunarekin lotuta, ezartzen dituen exijentziak betetzeari dagokionez.

## VI

II. tituluaren III. kapitulua osasuna babesteko sistemari buruzkoa da eta, besteak beste, autonomia-erkidegoekin lankidetzaz-esparru bat eratzen du, kirolarien osasuna babesteko eredu era praktikoa eta eraginkorrean aplikatu dadin.

Kirolean osasuna babesteko eredu berriaren funtsezko neurri batzuk hauexek dira: osasun-azterketen sistema ezartzea, zenbat eta gogorragoa izan jarduera fisikoa orduan eta sendoagoa izango dena; kirol-jardun gogorrenarekin lotutako establezimenduen bihotz- eta arnasa-eritasun akutuen aurka borrokatzeko baliabideak edukitzea; goimailako edo izaera profesionaleko kirolarien osasun-txarteletako sistema bat edo kirol-jarduera bukatzen denean osasuna babesteko neurri berriak ezartzea.

Neurri espezifiko horien guztien osagarri, orobat, Osasuna Babesteko Plana ezarriko da kirol-jardueraren esparruan; plan horrek arrisku arruntak eta bereziak zehaztuko ditu, baita kirolariengan hautemandako arriskuen arabera beharrezko izan litezkeen prebentzio-, kontserbazio- eta oneratzeko-neurriak ere.

Azkenik, osasuna babesteko arloan espezializatutako ikerketa sendotzeko sistema bat ezartzen du Legeak, hala prebentzio hutsezko osasun-alderdian, nola dopina prebenitzeko eta hautemateko bide egokiak edukitzeko beharri dagokionez.

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia berriaren esku egongo dira ekimen berri horiek guztiak.

Osasuna babestearen eta dopinaren arloko jarduerak eragin ditzaketen datuak babesteko neurri espezifikoak daude IV. kapituluan. Ez daude berritasun asko aurreko arauetan xedatutakoari dagokionez, baina idazketa teknikoki hobetu da.

## VII

Dopina sor dezaketen produktuak kontrolatzeko eta ikuskatzeko politikari buruzkoa da III. tituluaren Bi kapitulu ditu; lehenean (produktu, sendagai eta osagarri nutrizionalak kontrolatzeko eta ikuskatzeko neurriak errubrikarekin) kirolean dopina sor dezaketen produktuen gainean agintari publikoek kontrol egokia dutela bermatzeko neurri espezifikoak daude ezarrita. Kirol-erakundeek eskura dituzten produktu dopatzaileak

ezagutzen laguntzen dute neurri horiek, baita Espainian fabrikaturiko era horretako produktuak sortzeko eta banatzeko zikloa ere. Neurri horiekin batera, erakunde jakin batzuei ahalmena emango zaie debekatutako gaiak egon litezkeen botika-ontziak edo gainerako tokiak ikuskatzeko; halaber, dopinerako erabiltzen diren edo erabil daitezkeen produktuak, gaiak eta tresnak atzemateko aukera ere jaso da.

II. kapitulua era horretako produktuak erabiltzeko baldintzei buruzkoa da, nutrizio-produktuak merkaturatzeari eta erabiltzeari dagokienez; hala, produktu horiek deklaratzeko eta informatzeko tresnak ezartzen ditu; kirol-jardueretara bideratutako establezimenduetan produktu horiek merkaturatzea espresuki debekatu du; sistema elektrikoaren bidezko salmenta arautzen du, eta, azkenik, osasun-langileentzat edo beste eratakoentzat zehapenak ezartzen ditu kiroleko dopin-jarduerengatik, kirol-lizentziarik ez duten pertsonari dagokienez.

## VIII

Legean honako xedapen hauek ere badaude: lau xedapen gehigarri, zeinek Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia dopinaren aurkako erakunde nazionaltzat jotzen duten; federazioen estatutuak eta araudiak egokitzea aurreikusten duten; Agentziaren izen-aldaketa xedatzen duten, eta Kirol Diziplinaren Espainiako Batzordearen eta Hauteskunde Bermeen Batzordearen arauzko erreferentziak ezabatzen eta egokitzen dituzten Kirolaren Administrazio Auzitegia sortu ondoren; hiru xedapen iragankor, uneko diziplinako prozedurei eta dopin-kontrolerako habilitazioei buruzkoak; xedapen indargabetzaile bat, eta sei azken xedapen, eskumen-gaikuntzari, Legearen xedapen organikoaren deskribapenari, arauaren arauzko garapenari, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren aginduz eranskinak aldatzeko aukerari, Kirolaren Administrazio Auzitegiaren sorrerari (Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 84. artikulua aldatuta), Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen aldaketari, Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren manu jakin batzuk indargabetzeari eta Legea indarrean hasteari buruzkoak.

Azkenik, Dopinaren Aurkako Munduko Kodeak xedatzen duenaren arabera nahitaezkoa den definizioen eranskin bat gehitu da; han gure araudi juridikora egokitu dira definiziook. Halaber, koadro argigarri bat ere erantsi da (Legearen 28. artikuluan aipatuta), non dopinaren arloko bigarren arau-hauste baten ondorioz ezarri beharreko zehapenak zehazten diren.

## IX

Azken batean, aurreko araudia modernizatzeko ahalegin bat da Lege berri hau, gure antolamendu juridikoa dopinaren aurkako borrokaren nazioarteko arauetara guztiz egokitzeko; halaber, aurrerapen nabarmena da kirolarien osasunaren babesa ulertzeko moduan, botere publiko guztiek zaindu beharreko funtsezko elementu bat izanik.

### I. TITULUA

#### Xedapen orokorrak

#### I. KAPITULUA

#### Legearen aplikazio-eremua

1. artikulua. *Lege honen aplikazio-eremua eta xedea.*

1. Kirol-jardunaren esparruan dopinaren aurkako borrokarako eta osasunaren inguruko prebentzioko esparru orokor bat ezartzea da lege honen xedea, bereziki kirol antolatuen edo kirol-lizentziadunaren esparruan, Espainiak hartutako nazioarteko konpromisoei jarraiki, joko garbia, geure burua gainditzea eta kirola modu osasungarrian egitea nagusi diren ingurunea ezartzeko asmoz.



2. Kirol-jardunari oro har aplikatuko zaio lege hau. Nolanahi ere, II. tituluaren I. eta II. kapituluetan xedatutakoa lege honen 10.1 artikuluan zehaztutako kirolariei baino ez zaie aplikatuko.

3. Ofizialki nazioarteko maila duten edo nazioarteko lehiaketetan parte hartzen duten kirolariek dagokien nazioarteko federazioaren eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren arauak eta prozedurak bete behar dituzte, baita pasaporte biologikoei buruzkoak ere, horrelakorik egonez gero. Hori guztia kontrolak egiteko aukerari kalte egin gabe ulertuta, lege honen II. tituluaren I. kapituluaren xedatutakoari jarraiki. Nazioarteko mailako kirolariaren definizioa lege honen I. eranskinean jasota dago.

2. artikulua. *Botere publikoen jarduera kirol-jardun orokorrean osasuna babesteko arloan.*

Botere publikoek, dagozkien eskumenen esparruan eta kirol-jardunaren mota eta horretan parte hartzen duten pertsonak kontuan hartuta, osasun-neurriak hartuko dituzte baldintza ez-egokietan egindako kirol-jardunaren ondoriozko osasunaren narriadura, lesioak eta ondorio kaltegarriak prebenitzeko.

3. artikulua. *Kirolean osasuna babestea.*

Kirolaren esparruan osasuna babestea hauxe izango da: botere publikoek, nor bere eskumen-esparruan, kirol-jarduna kirolarien osasunerako baldintza onenetan egin dadin lortzeko, baita kirol-jardueratik, bereziki goi-mailako lehiaketako kirolean, etor litezkeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko ere, eskatzen, bultzatzen edo egiten dituzten ekintza guztiak.

4. artikulua. *Kirol-lizentziadun kiroleko dopinaren definizioa. Debekatuta dauden gai eta metodoen zerrenda.*

1. Kirol antolatua edo kirol-lizentziadunaren esparruan, hauxe hartuko da dopintzat: lege honen aplikazio-eremuko pertsonaren batek 22. artikuluan adierazitako portaeraren bat egitea, horiek lege honen definizioen eranskinean ezarritako irismenarekin interpretaturik.

2. Espainiak hartutako nazioarteko konpromiso eta betebeharren baitan, eta, bereziki, Unescoren Dopinaren Aurkako Konbentzioaren esparruan, Kirol Kontseilu Gorenak «Estatuko Aldizkari ofizialean» argitaratuko du, haren presidentziaren ebazpen bidez, kirolean debekatuta izango diren substantzien eta metodoen zerrenda. Aldian-aldian argitaratuko da zerrenda, bai eta aldaketak egiten diren guztietan ere.

Debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrendari buruz informatzeko eta kontsultak egiteko beste modu batzuk ezarriko ditu Kirol Kontseilu Gorenak. Horretarako, erakundeek eta kirolarekin zerikusia duten organoen orri digitaletan erantsiko du zerrenda, eta, horrezaz gain, zerrendaren berri emateko, hedatzeko eta eskura izateko bestelako moduak eta bideak ere ezarriko ditu.

Kirol Kontseilu Gorenak zainduko du Nazioarteko erakundeek emandako zerrendak Espainian uniformeak izan daitezen, baita aldi berean zerrenda bakar bat ezartzeko segurtasun juridikoa egon dadin ere.

5. artikulua. *Dopina kirol-jardunean, oro har.*

Kirol-jardun orokorraren barruan dopinaren aurkako hainbat ekintza egiten dituzte botere publikoek kirol-jardueran aritzen direnei ohartarazteko debekatutako gaiak eta metodoak erabiltzeak osasunari dakarzkion arriskuez, kirol-jarduna norberaren gaitasunera egokitu beharraz eta kirol-jarduneko konpromiso etikoaz.

## II. KAPITULUA

**Osasuna babesteko eta dopinaren aurka borrokatzeko administrazio-antolamendua**6. artikulua. *Estatuaren eskumenak.*

1. Gobernuari dagokio dopinaren aurkako politika eraginkor bat egitea, bultzatzea eta zuzentzea, indarreko Estatu lizentzia duten edota 10.1 artikuluan zehaztuta dauden kirolariei —eduki dutelako edo edukitzea espero dutelako— dagokienez.

2. Gobernuari dagokio gainerako botere publikoekin koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko neurriak ezartzea, kirolean osasuna babesteko, kirol-jardunari lotutako lesioak prebenitzeko eta baldintza ez-egokietan egindako kirol-jardunak osasunari ekarritako ondorio kaltegarriak arintzeko politika eraginkor bat lortzeko.

3. Gobernuaren esku ere badago, halaber, kirol-erakundeekin lankidetzan aritzeko esparru orokor bat ezartzea, arlo horretan politika publikoak gauzatzen nahiz kirol osasungarriagoa eta konpromiso etiko handiagoa lortzen laguntzeko.

7. artikulua. *Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia.*

1. Zerbitzu publikoak hobetzeko estatu-agentziei buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legean aurreikusitako Estatu-agentzia bat da Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia, eta erakunde publiko gisa eratu da, haren bitartez kirolean osasuna babesteko estatu-politikak egiteko, horien artean eta bereziki, dopinaren aurka borrokatzeko eta kirolaren zientzietan ikertzeko politikak.

2. Erabateko independentzia funtzionala du 10.1 artikuluan aipatutako kirolariei dagokienez dopina kontrolatzeko neurriak ezarri eta gauzatzen dituenean; halaber, ezin du ezein organo edo agintariren agindu edo jarraibiderik jaso dopina kontrolatzeko prozesuetan, eta bereziki bere eskumeneko zehapen-prozeduren izapideetan eta ebazpenean. Esparru horretan, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari dagozkio plangintza ezartzea, kontrolak egitea eta, hala badagokio, egindako jarduerak ekarritako espedienteak izapidetzea eta ebaztea.

3. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren eginkizunak, antolamendua eta jardun-prozedurak haren estatutuaren zehaztuko dira, Zerbitzu publikoak hobetzeko estatu-agentziei buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legean xedatutakoaren arabera.

Kirolaren agenteek hartuko dute parte, nolahi ere, zuzendaritzako kide anitzeko organoan eta, haien barruan, kirol-federazioek zehazki.

Agentziaren egituraren kirolarien ordezkariak parte hartzeko organo bat egongo da.

4. Edozelan ere, parte hartzeko, koordinatzeko eta jarraitzeko organo bat edukiko du, eta autonomia-erkidegoetan kirolaren eta osasunaren arloan eskudun diren organoak eta erakundeak izango dute ordezkartza.

5. Autonomia-erkidegoen esparruan dopinaren aurka borrokatzeko erakundeak egonez gero, haiek parte hartzeko organo bat eratuko da Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren barruan, Estatuaren dopin-arloko politika publikoen gainean informatzeko, eztabaidatzeko eta elkarlanean aritzeko.

6. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak hitzarmenak edo itunak sinatu ahal izango ditu edozer erakunde publiko edo pribaturekin estatutuak egotzen dizkion eginkizunak gauzatzeko, betiere sektore publikoaren kontratuei buruzko legedian ezarritakoari jarraiki.

7. Estatu Indar eta Segurtasun Kidegoei, polizia judizialari eta bere jardun-esparruarekin lotutako eskumenak dituzten gainerako botere publikoei, eta haiek eskatuta, epaile eta auzitegiei aholku emateko eta horiekin elkarlanean aritzeko estatu erakunde publikoa izango da Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia, dopinaren politika ikertzeko, kontrolatzeko eta egiteko organismo espezializatu modura.

8. Artikulu honetan aipatutako organoetako eta Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren barruan egon daitezkeen gainerako guztietako kideak izendatzeko profesionaltasun-irizpideak jarraituko dituzte, eta errekonozimendu handia izan beharko

dute kirolaren eta dopinaren aurkako borrokaren munduan; halaber, emakumeek eta gizonek modu orekatuan parte hartu beharko dute, arrazoi objektiboak badaude izan ezik, behar bezala arrazoituta betiere.

## 8. artikulua. *Autonomia-erkidegoak.*

1. Autonomia-erkidegoen esku dago, bakoitzaren legeen arabera, dopina kontrolatzeko eta autonomia-esparruko kirol-lizentziadun edo autonomia-eskumeneko lehiaketetako kirolarien osasuna babesteko politikak garatzea.

Nolanahi ere, Espainiak hartutako nazioarteko konpromisoen zein Espainian aplikatu beharreko itun eta hitzarmenen esparruan gauzatu behar dira politika horiek.

Estatu-esparruko kirol-lehiaketa ofizialei edo erakunde olinpiar edo paralinpiarrek edo nazioarteko kirol-federazioek antolatutako nazioarteko kirol-lehiaketei dagokienez, dopinaren kontrolak materialki egin ahal izango dituzte autonomia-administrazioek, baina, aldez aurretik, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari edo nazioarteko erakunde edo federazio arduradunei eskaera eginda (eskaera horren aurretik sinatutako hitzarmenaren bidez bideratu beharko da).

Estatuko lizentzia, kontrola egiten duen autonomia-erkidegoarena ez den autonomia-lizentzia edo nazioarteko lizentzia duten kirolariei lehiaketatik kanpo kontrolak egin ahal izateko, bestalde, autonomia-administrazioek eskaera egin behar diote Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari edota autonomiako edo nazioarteko erakunde edo federazio arduradunei.

2. Halaber, kirolarien osasuna babesteko politikak formulatu eta gauzatu ahal izango dituzte autonomia-erkidegoek Estatuko Administrazio Orokorrarekin, aurreko artikuluetan adierazitako moduan, hitzartutako lankidetzak eta elkarlan-neurrien esparruan.

## 9. artikulua. *Gainerako botere publikoen eta kirol-erakundeen eskumenak.*

Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, osasuna babesteko, kirol-lesioen aurka borrokatzeko eta haien ondorioak konpontzeko edo lehengoratzeko neurriak ezarri ahal izango dituzte gainerako herri-administrazio eskudunek eta era guztietako kirol-erakundeek.

## II. TITULUA

### **Kirol-lizentziadun kirolarien osasuna eta dopina**

#### I. KAPITULUA

### **Dopina kirol-lizentziadun kirolaren esparruan**

## 10. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Estatuko edo autonomiako lizentzia federatibo homologatua duten, aldez aurretik eduki duten edo eskatu duten kirolariei aplikatuko zaie kapitulu hau eta titulu honetako II. kapituluak, hurrengo paragrafoan ezarritako eremu objektiboan. Lege honen 24., 25. eta 26. artikuluetan aipatutako pertsona eta erakundeei ere zabalduko zaie, baita, lege honen xedatutakoaren babesean, lehiaketatik kanpo kontrolak egin ahal zaizkien atzerriko kirolariei ere.

Lizentzia federatiboa eduki duten baina lege honen xedapenen arabera zehatzeko espedienteak hasteko unean lizentziarik ez duten kirolariei, bestalde, berau aplikatuko zaie, hala badagokio, lizentzia lortzeko inhabilitazioa xedatzearen.

Lege honetan xedatutako arau-hausteen eta zehapenen preskripzio-araubidearen baldintzapean aplikatuko da.

2. Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen esparruan kirol-erakundeek antolatzen dituzten Estatu-esparruko kirol-lehiaketa ofizialek zehazten dute lege honen aplikazio-eremu objektiboa, Estatuko edo autonomiako lizentzia federatibo homologatutako kirolaren eremuko dopinari dagokionez.

## 1. atala. Betebeharrak

### 11. artikulua. *Dopin-kontrolak eta dopina kontrolatzen laguntzeko beste jarduera material batzuk egiteko betebeharra.*

1. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak edo, dagokionean, Espainiako kirol-federazioek erabakitako kontrolak egin beharko dituzte titulu honetan jasotako kirolari guztiek, lehiaketaren barruan eta kanpoan.

Lehiaketatik kanpoko kontrolak ustekabeen edo alde zuzenetik noiz egingo diren jakinarazita egin daitezke. Lehenengo kasuan, hau da, ustekabeen egingo diren kontrolen kasuan, artikulua honetan aipatutako betebeharra kontrolak egiteari dagokio, eta, bigarren kasuan, berriz, betebeharra agertzeari eta kontrolak egiteari dagokie.

Bi kontrol-modalitate horien irismena eta egikera araudian zehaztuko dira, betiere kirolarien funtsezko eskubideak eta Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren behar materialak egoki adosten saiatuak, bereziki kontrolak lehiaketatik kanpo egiteari dagokionez.

Lege honen I. eranskinean aipatutako jarraipen-taldeetako kirolariei eragingo die bereziki kontrolak alde zuzenetik hitzordua jarrita egiteak.

2. Kontrolak egiteko betebeharra dopinaren alorreko arau-hauste bat egitearren kirol-lizentzia etenda dutenei ere badagokie zehapena betetzen ari diren bitartean, eta, edonola ere, kirol-lizentzia berriro gaitu aurretik kontrola egin beharko dute beti.

Lege honen 10.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, arrazoituta ebazpenaren bidez, betebeharrak hori zabaldu ahal izango die ekitaldi batean lizentzia duten eta ezarritako epean berritu ez duten kirolariei, baldin eta kirol-jarduna utzi ez dutelako arrazoizko susmoa badago eta hura berritu arte lehiaketatik kanpoko dopin-kontrolak saihesten saiatzen ari direla uste bada.

3. Lehen paragrafoan adierazitako kontrolak egin eta ahalik eta eraginkorrenak izan daitezkeen, kirolariek, entrenatzaile federatibo edo pertsonalek, talde eta klubek eta zuzendariak kirolariak non egon ohi diren jakiteko datuak eman behar dituzte –arauen bidez ezarritako moduan–, dopin-kontrolak egin ahal izateko.

Erregelamenduak betebeharrak hori zehaztu ahal izango du kirol-jardunaren ezaugarrien arabera eta, hala badagokio, kirolariak Estatuko edo nazioarteko esparruko kontrolerako banako planetan sartzen diren ala ez.

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren fitxategi batean gordeko da kirolariak non egon ohi diren azaltzen duen informazioa. Halaber, nazioarteko federazioen jarraipen-planetan jasotako kirolarien datuak laga ahal izango dizkio Dopinaren Aurkako Munduko Agentziari, haren eginkizunak burutzeko, betiere zergatik dauden jasota justifikatu ondoren.

Kontrolak planifikatzeko, koordinatzeko edo egiteko baino ezin izango da informazio hori laga, eta suntsitu egin beharko dute xede horietarako baliagarria ez denean eta, nolana ere, titulu honen IV. kapituluaren xedatutako moduan.

Nazioarteko federazioek edo Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak kirolari bat jarraipen-talde baten barruan jasotzen badute, egindako eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren datu-basean jasotako adierazpenak nahikoak izango dira lege honetan xedatutako lokalizazio-betebeharrak bete direla jitzeko, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak datu horietara jo ahal duenean.

4. Kirolariek, beren entrenatzaileek, medikuek eta gainerako osasun-langileek, bai eta kirol-klubetako eta kirol-erakundeetako zuzendariak ere, dopin-kontrolak egitekoan adierazi egin behar dute zer tratamendu terapeutiko egiten ari diren kirolariak, nor diren horien erantzule eta tratamenduak zer hartzen duen bere baitan, baldin eta kirolariek berriaz adierazten ez badute ez dutela baimenik ematen horren berri emateko.

5. Kontrola ezarri ahal izango zaie lehiaketan eta lehiaketatik kanpo Espainian egiten diren Estatuko edo nazioarteko lehiaketetan parte hartzen duten edo Espainiako lurraldean dauden baina lizentzia espainiarrik ez duten kirolariei. Kontrol horietatik etor litezkeen diziplina-espedituek dagokion nazioarteko araudiak ezarritako eran izapidetuko dira. Era berean, lehiaketatik kanpora kontrolak egin ahal izango dizkiete

Espanian entrenatzen ari direnean, eskumena duen nazioarteko erakundeak edo federazioak eskatuta.

Edonola ere, dopinaren aurkako kontrolen emaitzak dagokion nazioarteko kirol-federaziora eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziara igorriko dira.

6. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, dagokion kirol-modalitatea eta kirolarien kirol-maila gorabehera, jarraipen-talde bat ezarri ahal izango du; lege honetan xedatutakoak dira horren betebeharrak gehigarriak.

7. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak gaitutako agenteek dopinaren aurkako kontrolak ezarri ahal izango dizkiete lege honi lotutako kirolariei atzerrian daudenean, baina dauden herrialdeko dopinaren aurkako agintari nazionalak baimena eman ondoren.

12. artikulua. *Espanian egiten diren nazioarteko lehiaketetan egin beharreko dopin-kontrolak.*

1. Espanian egiten diren nazioarteko lehiaketetan, dopin-kontrolak antolatzeke eta egiteke ardura hauei dagokie: Nazioarteko Batzorde Olinpiarrari, lehiaketa horiek antolatzen dituzten kirol-federazio eta nazioarteko erakundeei edo, antolaketa hori beste federazio batzuen eskuetan uzten denean, federazio haiei.

2. Era berean, diziplinazko ahala erabiltzea dagokie, lege honen 31. artikuluan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, horiek ezar ditzaketzen zehapenen eraginkortasunaren inguruan.

3. Espanian egindako nazioarteko lehiaketa horietan dopinaren aurkako kontrolak egin ahal izateko, dena den, Kirol Kontseilu Gorenaren baimena eduki beharko du lehiaketak, Kirolari buruzko 10/1999 Legean xedatutakoari jarraiki.

4. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak dopinaren aurkako kontrolak egin ahal izango ditu Espanian eginiko nazioarteko lehiaketetan, baldin eta nazioarteko federazioak ez badu agindu horrelakoak egiteko.

5. Espanian nazioarteko lehiaketak antolatzen dituzten nazioarteko federazioek edo erakundeek lankidetzako akordioak eta hitzarmenak egin ahal izango dituzte Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziarekin, lehiaketa horietan dopinaren aurkako kontrolak azken horrek egin ditzan.

13. artikulua. *Dopinaren aurkako kontrolak egitea Espanian dauden atzerriko lizentziadun kirolariei.*

Espanian dauden atzerriko kirolariei kontrolak egiteko agindu ahal izango du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, autonomia-eskumenei kalterik egin gabe, bereziki titulartasun publikoko entrenatze-instalazioak edo -zentroak erabiltzen dituztenean.

Ondorio egokietarako, dagokion nazioarteko kirol-federazioari eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziari jakinaraziko zaizkie analisien emaitzak.

14. artikulua. *Nazioarteko erakundeek espainiar lizentzia duten kirolariei Espanian eginiko dopinaren aurkako kontrolak.*

1. Dopin-kontrolak egin ahal izateko eta balekotzat jotzeko lege honen 15. artikuluan eta horrekin bat egiten dutenetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte nazioarteko erakundeek.

2. Nazioarteko kirol-erakundeek eta Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak akordioak eta lankidetzak hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte, azken horrek egin ditzan erakunde horiek Espanian egin behar dituzten dopin-kontrolak.

*2. atala. Kontrol horiek egiterakoan bermatu beharreko alderdiak*15. artikulua. *Kontrolak egiteko gaitutako langileak eta bestelako bermeak.*

1. Mediku batek, analisi klinikoko mediku espezialista batek edo gaitasun hori ematen duen titulua duen bestelako osasun-langile batek egingo ditu kirolariari odola ateratzeko dopin-kontrolak; halaber, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak eginkizun horretarako gaituta egon beharko du. Beste parametro biologiko batzuei buruzko gainerako kontrolak agentziak behar den moduan gaitutako langileek egin beharko dituzte.

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak eta autonomia-erkidegoetako eskudun organoek gaikuntzak elkarri aitortzeko sistema bat garatu ahal izango dute hitzarmen espezifikoak izenpetuz.

Horretaz gain, nazioarteko federazioek, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak edo beste herrialde batzuetako Dopinaren Aurkako Agentzia Nazionalak gaitutako mediku edo osasun-langileek ere egin ahal izango dute lan hori, baldin eta Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak haiekin elkarlanean aritzeko hitzarmenak izenpetu baditu hartarako.

2. Kirolariaren gaueko atsedena errazteko, ez da lehiaketatik kanpoko dopin-kontrolak edo osasun-kontrolak hasiko 23:00etatik 06:00ak arteko ordutegian.

Behar den moduan justifikatutako kasuetan, ordea, eta proportzionaltasun-printzipioa erabat errespetaturik, lehiaketatik kanpoko dopin-kontrolak egin ahal izango dira, baldin eta egiteko unean kirolariari aurreko lerrokan ezarritako ordutegi-muga zergatik ez den bete azaltzen bazaio.

Lege honetan xedatutako dopin-kontrolak gutxieneko esku-hartzearen printzipioa jarraituz egiten direla zainduko du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, bere eginkizunen esparruan, eta proportzionaltasunari ere begiratuko dio kirolariaren gaueko atsedinari eta bere eskubide eta intimitateari eragiteari dagokienez.

3. Kontrolaren jakinarazpena jasotzean esango zaie kirolariei, eta, hala badagokio, lagina hartu baino lehen, kontrol hori dela-eta zein eskubide eta betebeharrak dituzten, eta prozeduraren funtsezko izapideen eta horien ondorio nagusien berri ere emango zaie, bai eta lege honek datuen tratamenduari eta datuak emateari buruz zer xedatzen duen ere. Horrez gain, jakinaraziko zaie, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dutela. Azken horiek datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarrita daude.

Horien artean proba ez egiteko eskubidea ere jasoko da, hurrengo paragrafoan xedatutakoari kalte egin gabe.

Dopin-kontrolak egitean laginak biltzeko informazio-eredu normalizatu bat ezarriko du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak.

Kirolarien funtsezko eskubideak guztiz errespetatuz egin beharko dira kontrolak.

4. Lege honen 22. artikulua lehen paragrafoaren c) idatz-zatian jasotako arau-hausteagatik jarraitzen diren dopin-arloko diziplinazko prozeduren ondorioetarako, kontrolak egiteari baliozko justifikaziorik gabe uko egitea, behin dokumentatuta, proba nahikoa izango da kirolariaren diziplinazko erantzukizuna eskatzeko.

Baliozko justifikaziotzat hauxe hartuko da: ezin joatea kontrola egitea objektiboki galarazten dion lesio egiaztatu baten ondorioz, edo kontrola egiteak kirolariaren osasuna arrisku larrian jartzea.

5. Aurreko paragrafoan aipatutako baliozko justifikaziorik gabeko uko egitea egiaztatzen duen dokumentua, gaitutako langileek eginikoa, nahikoa izango da dagokion diziplinazko prozedura hasteko, interesdunak duen defendatzeko eskubideari kalterik egin gabe.



16. artikulua. *Dopin-arloko betebeharrak osagarriak.*

1. Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen III. tituluak aipatutako klub, erakunde, talde eta gainerako erakundeek, edo lege horren esparruan antolatutako kirol-jarduera edo -lehiaketetan parte hartzen dutenek, liburu bat eduki behar dute, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzian behar bezala erregistratuta eta datu guztiak biltzen dituela bermatuta; beren medikuek ardurapean dituzten kirolariei agindutako osasun-tratamenduak jasoko dituzte bertan, betiere haiek inskripzioa baimentzen badute.

Erregistro-liburu hori osasun-agiritzat hartuko da jasotzen duen informazioa eskuratzearen zein datuak zaintzearen eta babestearen ondorioetarako.

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak osatu edo ordeztu egin ahal izango du erregistro-liburu hori datu-baseen prozedura zentralizatuen bidez, informazioaren teknologiak eta identifikazio elektronikoa erabilia; esate baterako, sinadura elektronikoen eta historia elektronikoa bakar eta zentralizatuko sistemen bidez.

Kirolariak, liburuan inskripzioa egiten den momentuan, idazpenaren kopia bat edo dokumentu baliokide bat eman diezaieten eska dezakete. Bertan, behar bezala identifikatuta azaldu beharko da osasun-tratamendua agindu edo egin duen medikua edo osasun-arloko profesionala, eta, era berean, osasun-arretaren data zein horren arduradun den profesionalaren sinadura eta, hala badagokio, zigilua jasoko dira. Datu hori osasun-txartelean eransteko ere eskatu ahal izango dute.

Lege honen aplikazio-eremuaren barruko kirol bati agindu edo aplikatu behar zaion edozer prozedura mediko, terapeutiko edo sanitariok, baldin eta dopintzat hartzen bada, baita erabilera terapeutikoko baimena badu ere, baimen informatuko prozedura bat jarraitu beharko du; hori erregelamenduan arautuko da, eta kopia bat gordeko da erregistro-liburuan. Osasun-jarduera orok kirolariaren sinadura jaso behar du, jarduera hori egin delako eta erregistro-liburuko idazpena baimendu delako berme modura.

2. Espainiako kirol-federazioek ere izango dute betebeharrak hori kirolariak kirol-selekzioen esparruan haien ardurapean daudenean.

3. Banakako kiroletan, betebeharrak hori kirolariena edo Espainiako dagokion federazioarena izango da, aurreko paragrafoan adierazitako moduan. Hori betetzeari dagokionez, taldeko kiroletarako ezarritako arau berak egongo dira.

17. artikulua. *Erabilera terapeutikoko baimenak.*

1. Estatu-esparruko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko lizentzia duten kirolariak erabilera terapeutikoko baimen bat eska diezaiokete Erabilera Terapeutikoko Baimenen Batzordeari (Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari atxikia); Kiroleko Dopinaren Aurkako Nazioarteko Konbentzioaren II. eranskinean eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak hartutako erabilera terapeutikoko baimenak emateko arauetan jasotako ebaluazio-irizpideak aplikatuko ditu hark.

Kirolaria nazioarteko federazio baten nazioarteko jarraipen-programa baten barruan badago, nazioarteko federazio hori arduratuko da erabilera terapeutikoko baimena emateaz, eta horrek erabateko balioa izango du Estatuko kirol-lehiaketa eta -jardueretan.

2. Lege honen eta berau garatzen duten xedapenen barruan ematen diren erabilera terapeutikoko baimenek, bai eta dagozkien dokumentazio osagarriek ere, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren zaintzapean gelditu beharko dute.

Baldin eta nazioarteko erakunde batek federazio-lizentzia duen kirolari bati baimen bat eman badio Estatu-esparruko lehiaketetan parte hartzeko, kirolariak edo erregelamenduan hartarako izendatutako pertsonak horren kopia bat bidali behar dio Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari, erregistratu dezan, baimen horrek balioa hartzen duenean bertan. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak Dopinaren Aurkako Munduko Agentziarekin koordinatuko du informazioa, erabilera terapeutikoaren gaineko baimenei dagokienez.

Kirol-diziplinazko organoek ezin izango dituzte baliozkotzat jo Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzian behar den moduan erregistraturik ez dauden erabilera

terapeutikoko baimenak, ezta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren ustez ziurtasun nahikorik ez dutenak ere.

3. atala. *Kontrolen motak, plangintza eta haiek egiteko eskumena*

18. artikulua. *Kontrol motak.*

1. Lege honen ondorioetarako, hauexek hartzen dira dopin-kontroltzat:

a) Medikuek, analisi klinikoetako mediku espezialistek edo Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak gaitutako osasun-langileek, odol-ateratzeen kasuan, edo agentzia berak behar den moduan gaitutako langileek, beste parametro biologiko batzuen kontrolei dagokienez, egiten dituzten jarduera material guztiak, baldin eta dopina sor lezakeen debekatutako gairen bat dagoen edo erregelamenduz kanpoko metodoren bat erabili duten egiaztatzea badute xedetzat, berau hartarako ateratako lagin batean prozedura estandarizatuen bidez hautemanda.

Nolanahi ere, dopin-kontrolen barruan haiek ere sartuko dira: horiek bermeeekin egin daitezten planifikatzeko jarduerak, kontrolak egingo zaizkien kirolariak hautatzea, laginak biltzea eta erabiltzea, laborategiko analisiak eta lortutako emaitzak kudeatzea eta zaintzea.

b) Medikuek, analisi klinikoetako mediku espezialistek eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak eta 12. eta hurrengo artikuluetan xedatutako nazioarteko erakundeek baimendutako langileek egindako jarduera material guztiak, baldin eta dopina sor lezakeen debekatutako gairen bat dagoen edo erregelamenduz kanpoko metodoren bat erabili den egiaztatzea badute xedetzat.

2. Lege honen ondorioetarako, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak kirol-jarduerak sor ditzakeen osasunaren kalterako ondorioak hobetu, kontrolatu eta prebenitzeko, kirol-istripuak prebenitzeko edo horien ondorioak txikiagotzeko ezartzen dituen jarduera guztiak hartuko dira osasuna babesteko kontrol edo jardueratzat.

Kirol-modalitate edo -espezialitateen ezaugarri bereziak hartuko dira kontuan jarduera horiek egiteko garaian.

Ondorio horietarako, ezaugarri bereziak dituztelako beharrezkoa jotzen duenean, zenbait kirol-modalitate edo -espezialitateetan egitea proposatu ahal izango du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak.

Erregelamenduz zehaztuko dira kirolarien osasuna babesteko jarduerak izan behar dituzten baldintzak eta ezaugarriak.

19. artikulua. *Kontrolen plangintza.*

1. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak egingo ditu –bere baliabideekin edo beste batzuekin– 10.1 artikuluan aipatutako kirolariei egin beharreko dopin-kontrolak, osasun-kontrolak eta osasuna babesteko arloko gainerako jarduerak, betiere funts publikoekin finantzatzen badira.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, kirol-federazioek, beren aurrekontuen kontura, komenigarritzat jotzen dituzten kontrol gehigarriak agindu ahal izango dituzte.

2. Plangintzak kirol-modalitateko lehiaketa nagusiak hartuko ditu kontuan, baita Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari kontroletan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko ematen zaizkion elementu teknikoak ere; halaber, lehiatzeko zein prestatzeko jarduerak egoki haztatuko ditu, eta, bereziki, Espainiako kirolariek nazioarteko ekitaldi handietan erregelamenduzko arauetan zehaztutako moduan parte hartzea.

Xede horretarako, federazioek eta, hala badagokio, liga profesionalek beharrezko informazioa bidali beharko diote Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari, lehiaketen egutegia ezagutu ahal izan dezan.

3. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren plangintzaz arduratzen den departamentuak plangintza ahalik eta eraginkorra izan dadin lortzeko beharrezko informazioa eskatu ahal izango die Kirol Kontseilu Gorenari eta Kirol Federazioei.

4. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, bere zuzendariaren bitartez, lege honi lotutako kirolariei kontrol bereziak egiteko agindu ahal izango du, plangintzatik kanpo, lehiaketaren barruan edo kanpoan. Kontrol horiek lege honetan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera egingo dira, betiere artikulua honen seigarren paragrafoan xedatutakoa erabat errespetaturik.

5. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak egindako plangintza isilpekoa izango da, eta ezin izango da zabaldu edo argitaratu. Betebehar hori urratzea arau-hauste oso larritzat hartuko da, lege honen 22.1.j) artikulua babesean.

6. Kontrolak egitean, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak pertsonen funtsezko eskubideak eta datu pertsonalak erabat errespetatzen direla zainduko du, eta, era berean, praktikarik onenak errespetatuz jardungo du.

20. artikulua. *Kontrolak egiteko eskumena.*

1. Lehiaketa barruan zein kanpoan kontrolak planifikatzea eta egitea Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren esku egongo dira.

2. Lehiaketa barruan edo kanpoan kirolariei egindako dopin-kontroletan, kirolean debekaturik dauden gaiak eta metodoak hautemateko analisiak Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren nazioarteko egiaztapena duten laborategietan edo Estatuak homologatuetan egin beharko dira.

3. Horretaz gain, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak egiaztatutako laborategiek egindako analisiak ondorioak izango dituzte Espainian izapidetzen diren administrazio-prozeduretan.

4. Autonomia-erkidegoek lankidetzatza-hitzarmenak egin ahal izango dituzte Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziarekin lizentzia autonomikoa duten kirolarien gainean eta autonomia-esparruko probetan haiei dagozkien dopin-kontrolerako eskumenak bere gain har ditzan.

## II. KAPITULUA

### Dopin-arloko zehapen-araubidea

1. atala. *Arduradunak, arau-hausteak, zehapenak eta erantzukizuna zehazteko araubidea*

21. artikulua. *Kirolariaren eta inguruko erantzukizuna.*

1. II. tituluaren I. kapituluaren aplikazio-eremuan jasotako kirolariak dopinaren aurka borrokatzeko portaera aktiboa izan behar dute, eta bermatu behar dute organismoan ez zaiela debekaturiko gairik sartzen; hala, horrelako gairen bat dutela hautematen denean, horren erantzule dira lege honetan ezarritako moduan.

2. Kirolariak, haien entrenatzaile federatibo edo pertsonalek, zuzendaritzako kideek, bai eta kirolaria atxikita dagoen kirol-erakundeek eta -klubek ere kirolariak ohikotasunez lokalizatzeari buruz ezarritako betebeharrak ez betetzeaz erantzungo dute.

3. Kirolariak, entrenatzaileak, medikuak eta gainerako osasun-langileak eta klubak eta kirol-erakundeak zuzendaritzako kideak izango dira kirolariaren eritasunei, kirolariak jarraitzen dituen osasun-tratamenduei, tratamenduaren irismen eta arduradunari buruzko informazioa eskudun organoei emateko betebeharra arautzen duten arauak urratzearen erantzule, horrelako datuak erabiltzeko baimena eman badute.

Era berean, erabilera terapeutikoko baimenek ezarritako betebeharrak edo hura eskatzeko betebeharra urratzearen erantzule ere izango dira.

4. Manu honetan ezarritakoa lege honetan xedatutako gainerako betebeharrak eta zehapen-araubideari kalte egin gabe ulertzen da.

22. artikulua. *Dopinaren arloko arau-hausteen tipifikazioa.*

## 1. Lege honen ondorioetarako, hauek joko dira arau-hauste oso larritzat:

a) Aurreko artikulua aipatzen dituen betebeharrak ez betetzea, eta, horren ondorioz, debekatutako gairen bat edo haren metabolitoak edo markatzaileak hautematea kirolari baten gorputz-laginetan.

Aurrekoari kalte egin gabe, lege honen 4. artikuluan xedatutako gai eta metodo debekatuen zerrendak kuantifikazio-muga bat xedatu ahal izango du gai jakin batzuetarako, edota baloratzeko irizpide bereziak debekaturiko gaien hautematea ebaluatzeko.

b) Kirolean debekaturik dauden gaiak edo metodoak erabili edo kontsumitzea.

c) Lehiaketaren barruan eta kanpoan, baliozko justifikaziorik gabe, dopin-kontrolak egiteari uko egitea edo aurre egitea, baita haiek oztopatzea, jaramon ez egitea, behar ez bezala luzatzea, ezkutatzea eta, ekintzaz edo egin ezaz, lege honetan xedatutako moduan dopin-kontrolak egitea saihesten, eragozten, nahasten edo galarazten duten gainerako jarrerak ere.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioetarako, han adierazitako edozer jarreraz gain, arau-haustea bereziki gertatu dela joko da, baldin eta kirolari batek, ekintzaz edo egin ezaz, baimendu behar duen lagin-bilketa bere borondatez saihesten badu.

d) Debekaturiko gai edo metodoak erabiltzea edo horien erabilera sustatzea.

e) Dopina kontrolatzeko prozeduren edozer osagai aldatu, faltsifikatu edo manipulatzeko.

f) Kirolariek edo inguruko pertsonak, dela lehiaketa barruan edo kanpoan, esparru horretan debekaturik dauden gaiak edo debekaturiko metodoak erabiltzeko behar diren elementuak edukitzea, betiere haiek emateko erabilera terapeutikoko baimenik edo nahikotzat jotako beste edozer legezko edo erregelamenduzko justifikaziorik ez badute.

Erabilera terapeutikoko baimen bat edukitzeak ez du arau-haustea egin dela baztertuko, baldin eta adierazitako baimenak babestutako erabilera hutsari legokiokeena baino debekaturiko gai edo metodo-kopuru handiagorik badute arduradunek, betiere manu honen lehen paragrafoaren i) idatz-zatian xedatutako trafikorako dela pentsa badaiteke.

g) Kirolariei debekaturiko gaiak edo kirol-jardueran debekaturik dauden metodoak ematea, eskaintzea, eskuratzea edo hornitzea, dela lehiaketa barruan edo kanpoan.

h) Debekaturiko gaiak edo metodoak erabiltzeko baldintzak sustatzea, bultzatzea, laguntzea, eragitea edo erraztea.

i) Debekatuta dauden gai eta metodoen trafikoa.

j) 19. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzea plangintzaren isilpekotasunari dagokionez.

k) Lege honen arabera ezarritako zehapenak urratzea.

l) Paragrafo honen b), e), g) eta i) idatz-zatietan azaldutako jarduerak egiten saiatzea.

m) Dopina sor lezaketelako debekaturik dauden gaiak dituzten produktuak biltzea, merkaturatzea edo banatzea, edozer modalitatetan, kirol-jardueretara bideratutako establezimenduetan.

n) Dopina sor lezaketelako debekaturik dauden gaiak dituzten produktuen kontsumoa bultzatzea kirol-jardueretara bideratutako establezimenduetan.

## 2. Arau-hauste larriak izango dira:

a) Kirolariaren lokalizazioari buruzko informazioa aurkezteko betebeharrak edo kirolariak kontrolak kokaleku horretan egiteko prest egoteari dagozkionak ez betetzea, araudi erregulatzailan xedatutako moduan.

Arau-haustea dagoela joko da kirolariak ez baditu kokapen-arloko betebeharrak hiru aldiz bete hemezortzi hilabeteko epe baten barruan.

b) Aurreko paragrafoaren a), b) eta f) idatz-zatietan azaldutako jokabideak, baldin eta Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen 4.2.2 artikuluan eta 4. artikuluan jasotako

zerrendan «gai espezifikoko» gisa adierazitako gaiei badagozkie, horiei buruzkoak badira edo horiek badituzte xedetzat.

Jokabide edo jarduera horiek arau-hauste larritzat jo ahal izateko, arau-haustea justifikatu beharko du gaia bere organismoan nola sartu den edo hura edukitzea zerk justifikatzen duen, eta gai horrek kirol-errendimendua hobetzea edo errendimendu hori hobetzen duen beste gai baten erabilera ezkutatzeko xedetzat ez duelako froga nahikoak aurkeztu beharko ditu. Zigor-aldiaren edozer murrizketa aztertzeke aintzat hartuko den irizpidea balizko arau-haustearen erruduntasun-maila izango da.

Probak nahikoak direla jo ahal izateko, adierazpen hori babesten duten frogak aurkeztu beharko ditu arau-haustea; kirol-errendimendua hobetzeko edo berau hobetzen duen gai bat erabili izana ezkutatzeko asmorik izan ez delako uste sendoa izan behar du eskudun organoak haiei esker.

c) Osasun-tratamenduei buruzko informazioari dagozkion betebeharrak eta kirolariak –lege honen 17.2 artikuluan aipatutako erabilera terapeutikoko baimenak eskuratuz gero– Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari egin beharreko jakinarazpenari dagozkionak ez betetzea, bai eta lege honen 55. artikuluan xedatutakoa urratzea ere.

### 23. artikulua. *Kirolarientzako zehapenak.*

1. 22. artikulua 1. paragrafoan oso larritzat jotako arau-haustea honela zigortuko dira:

a) 22. artikulua 1. paragrafoko a), b), c), d), e), f), l), m) eta n) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak eginez gero, federazio-lizentzia bi urterako etetea ezarriko da, bai eta 3.001 euro eta 12.000 euro bitarteko isuna ere.

b) 22. artikulua 1. paragrafoko g), h), i), j) eta k) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak eginez gero, federazio-lizentzia lau urterako etetetik bitarteko osoan lizentziarik eskuratu ezin izatera bitarteko zehapena ezarriko da, bai eta 3.001 euro eta 12.000 euro bitarteko isuna ere.

2. 22. artikulua 2. paragrafoan larritzat jotako arau-haustea honela zigortuko dira:

a) Lege honen 22. artikulua 2. paragrafoko a) eta c) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste larriak eginez gero, federazio-lizentzia urtebetetik bi urterako etetea ezarriko da, bai eta 1.500 euro eta 3.000 euro bitarteko isuna ere. Etetea gutxienez urtebetekoa izango da, eta bi urtekoa gehienez. Kirolariaren erruduntasun-maila aintzat hartuta zehaztuko da, lege honen 27. artikuluan xedatutakoa aplikatuta.

b) Lege honen 22. artikulua 2. paragrafoko b) idatz-zatian aurreikusitako arau-hauste larriak eginez gero, federazio-lizentzia bi urtera arte eteteko edo oharrarazteko zehapena ezarriko da, bai eta 1.500 euro eta 3.000 euro bitarteko isuna ere. Horrelakoetan, lege honen 22. artikulua 2. paragrafoko b) idatz-zatiaren bigarren lerroan azaldutakoa gertatu beharko da.

### 24. artikulua. *Klubei, kirol-taldeei eta federazioei ezartzekoak diren zehapenak.*

1. Lege honen 22. artikulua 1. paragrafoan xedatutako arau-hauste oso larriak eginez gero, klubei, kirol-taldeei eta federazioei zehapen hauetako bat edo hainbat ezarriko zaizkie:

a) 30.001 eta 300.000 euro bitarteko isuna.

27.5.e) artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, jokabide horietan adingabe bat tarteko bada, edo berrerortzea egonez gero, diruzko zehapena osagarria baino ez da izango, eta 40.000 eta 400.000 euro bitarteko isunarekin zigortuko da.

b) Puntuak, kanporaketa edo postuak galtzea lehiaketaren sailkapenean.

c) Kategoria edo maila galtzea.

2. Lege honen 22. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitako arau-hauste larriak eginez gero, 10.000 eta 30.000 euro bitarteko isuna ezarriko da. Legez kontrako jokabide horietan bigarren aldiz eroriz gero, jokabidea arau-hauste oso larritzat joko da, eta 24.000 eurotik 80.000 euro arteko isuna ezarriko da, eta, hala balegokio, puntuak, kanporaketa edo posizioak galtzea sailkapenean edo kategoriaz edo mailaz jaistea. Arau-haustea hirugarren aldiz eginez gero, diru-zehapena osagarria baino ez da izango, eta 40.000 eurotik 400.000 euro arteko isuna ezarriko da.

3. Aurreko bi paragrafoetan xedatutako zehapenek ez dute eragotziko titulu honetan xedatutako gainerako neurriak eta ondorioak aplikatzea.

25. artikulua. *Teknikariei, epaileei, arbitroei eta kirol-lizentziadun gainerako pertsoneri, zuzendaritzako langileei, zuzendariei edo Espainiako kirol-federazioetako langileei, liga profesionaletako langileei, kirol-lehiaketa ofizialak antolatzen dituzten erakundeetako langileei eta kirol-klubei edo -taldeei ezartzekoak diren zehapenak.*

1. 22. artikulua 1. paragrafoan oso larritzat jotako arau-haustek honela zigortuko dira:

a) 22. artikulua lehenbiziko paragrafo b), c), d), e), f), eta l) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak eginez gero, federazio-lizentzia bi urterako etetea edo kirol-karguak betetzeko desgaitzara ezarriko da, bai eta 10.001 eurotik 100.000 euro arteko isuna ere.

b) 22. artikulua lehenbiziko paragrafo g), h), i), j) eta k) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak eginez gero, federazio-lizentzia etetea edo kirol-karguak betetzeko desgaitzara zehapena ezarriko da lau urtetik biziarteko desgaitzara bitartean, bai eta 10.001 eurotik 100.000 euro arteko isuna ere.

27.5.e) artikuluan xedatutakoa baztertu gabe, arau-haustea adingabe baten kontra eginez gero, 40.000 eta 400.000 euro bitarteko isunaz gain, biziarteko desgaitzara ere ezarriko da.

2. 22. artikulua 2. paragrafoan oso larritzat jotako arau-haustek honela zigortuko dira:

a) Lege honen 22. artikulua lehenbiziko paragrafo a) eta c) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste larriak eginez gero, federazio-lizentzia bi urterako etetea edo kirol-karguak betetzeko desgaitzara ezarriko da, bai eta 5.001 eurotik 50.000 euro arteko isuna ere.

b) Lege honen 22. artikulua bigarren paragrafo b) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste larriak eginez gero, federazio-lizentzia bi urtera arte etetea edo oharrarazteko zehapena ezarriko da, bai eta 10.000 eurotik 100.000 euro arteko isuna ere.

3. Atal honetan arau-haustetzat tipifikatutako jokabideak federazio-lizentziarik edo gaitzara baliokiderik gabe gauzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, zerbitzuak ematen dituztenean edo Espainiako kirol-federazioen, liga profesionalen edo haien eskuordetzaz lehiaketa ofizialak antolatzen dituzten erakundeen kontura jarduten dutenean, edo erakunde horien barruan integratutako pertsonak edo entitateek ezingo dute kirol-kargurik bete kirolarekin zerikusia duen ezein entitatetan, ez kirol-lizentziarik edo gaitzara baliokiderik eskuratu, ezta kirol-lizentziari dagozkion eskubideak baliatu ere kirol-karguak betetzeko edozer kirol-erakundetan desgaitze-zigorrek irauten duten hainbeste denboran, edo kirol-lizentziak edo gaitzara baliokideak kentzeko edo etetea zigorrek irauten duten hainbeste denboran.

Lege honen 22. artikulua 1. paragrafoan oso larritzat jotako arau-haustek kontratuaren fede onaren urraketatzat hartuko dira martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatuari buruzko Legearen testu bateginaren 54.2.d) artikulua onduz.

Espainiako kirol-federazioek, liga profesionalek eta kirol-lehiaketak antolatzen dituzten erakundeek egokitu egingo dute beren araudia lege honetako aurreikuspenak sartzeko;



aurreikuspen horiek bateragarriak izango dira kasu bakoitzean dagokiokeen erantzukizun zibilarekin eta lege honen 26.5 artikuluan xedatutakoaren ondorioz eskatu ahal diren erantzukizunengatik dagokiokeen kontu ematearekin.

26. artikulua. *Medikuei eta osasun-langileei, klub, talde, federazio eta beste edozer kirol-erakundetako langileei eta kirol-establezimenduetako arduradunei ezartzekoak diren zehapenak.*

1. 22. artikulua 1. paragrafoan oso larritzat jotako arau-hausteak, baldin eta medikuek eta osasun-eginkizunak gauzatzen dituzten gainerako langileek egiten badituzte, honela zigortuko dira:

a) 22. artikulua 1. paragrafo b), c), d), e), f), eta l) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak eginez gero, bi urteko aldi batez federazio-lizentzia etetea edo berau lortzeko desgaitasuna ezarriko da, bai eta 10.001 eurotik 100.000 euro arteko isuna ere.

b) 22. artikulua 1. paragrafo g), h), i), j) eta k) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak eginez gero, federazio-lizentzia etetea edo berau eskuratzeko desgaitasuna ezarriko da lau urtetik biziarteko desgaitasun bitartean, bai eta 10.001 eurotik 100.000 euro arteko isuna ere. 27.5 e) artikuluan xedatutakoa baztertu gabe, arau-haustea adingabe baten kontra eginez gero, 40.000 eta 400.000 euro bitarteko isuna ezarriko da, baita biziarteko desgaitasuna ere.

2. 22. artikulua 2. paragrafoan larritzat jotako arau-hausteak honela zigortuko dira:

a) Lege honen 22. artikulua 2. paragrafo a) eta c) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste larriak eginez gero, urte bat edo biko aldi batez federazio-lizentzia etetea edo berau eskuratzeko aukerarik ez izateko zehapena ezarriko da, bai eta 5.000 eurotik 50.000 euro arteko isuna ere.

b) Lege honen 22. artikulua 2. paragrafo b) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste larriak eginez gero, lizentzia bi urtera arteko aldi batez etetea zehapena ezarriko da, bai eta 3.000 eurotik 10.000 euro arteko isuna ere.

3. Jokabide horiek kontratuaren fede onaren urraketatzat hartuko dira martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 54.2.d) artikulua ondo onartutako.

4. Espainiako kirol-federazioek, liga profesionalak eta kirol-lehiaketa ofizialak antolatzen dituzten erakundeek beren araudia egokitu egingo dute lege honetako aurreikuspenak sartzeko; aurreikuspen horiek bateragarriak izango dira kasu bakoitzean dagokiokeen erantzukizun zibilarekin eta titulu honetan xedatutakoaren ondorioz eskatu ahal diren erantzukizunengatik dagokiokeen kontu ematearekin.

5. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren kalterik gabe eta atal honetan tipifikatutako jokabideengatik dagozkiokeen erantzukizunen kalterik gabe, diziplina-organismoek dagozkien lanbide-elkargoei jakinaraziko dizkiete osasun-eginkizunak betetzen dituzten langileek gauzatutako egintzak, egokiak diren diziplinazko ondorioetarako. Tartean diren kirolariek buruzko datuen gaineko beharrezko zuhertasunez egingo da lagapena.

27. artikulua. *Dopina dela-eta zehapenak ezartzeko irizpideak.*

1. Aurreko artikuluetan xedatutako zehapenak ezartzeko orduan proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, eta kasu bakoitzaren egoerari kasu eginez, bereziki ezagutzari, arau-hausleak egindako eginkizunen erantzukizun-mailari eta eragindako kalteen izaerari dagokienez.

2. Diziplinazko erantzukizuna inguruabar salbuesletzat hartuko da kirolariak edo zehatzeko prozedurak eragindako pertsonak egiaztatzea kasu jakin horretan ez dela erru edo zabarkeriarik egon bere aldetik.

Horrelakorik gertatuz gero, debekaturiko gaia bere organismoan nola sartu den justifikatu behar du kirolariak erantzukizunetik salbuesteko eta zehapena saihesteko.

Kasu horretan, kirolariak ez duela arau-hausterik egin erabakiko dute diziplina-organoek, dopin-arloko arau-hausteetan berrerortzea egotearen ondorioetarako.

Erabilera terapeutikoko baimen bat eskuratzea ere hartuko da inguruabar salbuesletzat; hala, diziplinazko erantzukizuna salbuetsiko da dopin-produktuak erabiltzeari, debekaturiko gai edo metodoak edukitzeari edo horiek emateari edo ematen saiatzeari dagokionez. Salbuespen horrek baimenean jasotzen diren debekaturiko gaiak edo metodoei baino ez die eragingo.

3. Inguruabar aringarritzat hauek hartuko dira:

a) Kirolariaren edo arau-haustearen jardueran erru edo zabarkeria larririk ez egotea behar den moduan egiaztaturik. Kasu horietan, horrelakorik izan ez balitz aplikatuko litzatekeen etenaldiaren erdiraino murriztuko du etenaldia diziplinazko organoak.

Baldin eta egindako arau-hausterako aurreikusitako zehapena federazio-lizentzia bizi guztirako desgaitzea bada, manu hau aplikatuta ezarritako etenaldi murriztua gutxienez zortzi urtekoa izango da.

Arau-haustea kirolari baten organismoan debekaturiko gai bat hauteman delako izan bada, aringarri hori aplika dadin, hark frogatu behar du nola sartu zen bere organismoan aipatutako gaia, era horretan bere erantzukizuna aldatzeko eta zehapenaren murrizketa lortzeko.

b) Kirolari batek edo arau-haustea bere borondatez onartzea dopinaren aurkako arauak urratzea dakarten portaerak izan dituela, eskudun organoaren aurrean eta gertaera haiengatik erantzukizuna eska litekeena adieraz dezakeen edozer jakinarazpen mota jaso aurretik, betiere une horretan aitortzea bada arau-haustearen froga bakarra.

Kasu horietan, arau-hausteagatik legokiokeen etenaldia murriztu ahal izango du eskudun organoak, horrelakorik izan ez balitz aplikatuko litzatekeen aldiaren erdira arte.

c) Kirolariak edo beste pertsona batek funtsezko laguntza ematea, betiere horrek beste kirolari edo pertsona batek dopinaren aurkako arauen bat urratu, Zigor Kodearen 361 bis artikuluan jasotako dopin-delitu bat egin edo arau profesionalen bat urratu dela azaleratzea edo frogatzea ahalbidetzen badu. Aringarri horren aplikazioa lege honen 36. artikuluan xedatutakora egokituko da.

4. Arau horri jarraiki edozer murrizketa aplikatu aurretik, aplikatu beharreko etenaldia lege honen 23. eta hurrengo artikuluetan ezarritako arauen arabera erabakiko da. Artikulu honetan aurreikusitako bi inguruabar aringarri edo gehiago aldi berean gertatzen badira, eta kirolariak egiaztatzen badu etenaldia murrizteko eskubidea duela, aringarririk gabe ezarriko litzatekeen etenaldiaren laurdenera arte murriztu ahal izango da egindako arau-hausteari legokiokeen zehapena.

Baldin eta inguruabar aringarriak dituen arau-haustea egilearen bigarrena bada, aplikatu beharreko etenaldia, lehenik, lege honen 28. artikuluari jarraiki zehaztuko da, eta dagokion aldiaren gainean aplikatuko da murrizketa. Inguruabar aringarriak aplikatu ondoren, etenaldia, gutxienez, aringarririk ezean aplikatu behar du litzatekeenaren laurdena izango da.

5. Diziplinazko erantzukizunaren inguruabar astungarritzat hauek hartuko dira:

a) Arau-haustea dopineko plan edo konplot antolatu baten barruan egitea arau-haustea.

b) Arau-haustea dopinaren aurkako arauak urratzea dakarten portaerak errepikatzea.

Ondorio horietarako, errepikatzen hartuko da debekatutako portaerak behin eta berriz egitea, betiere hori behar den moduan egiaztatzen bada zehatzeko prozeduran, betiere arau-haustea ez bada portaera horiengatik alde aurretik zigorrik jaso.

c) Arau-haustea debekaturiko hainbat gai edo metodo erabili edo eduki izana.

d) Arau-haustea ezarriko litzaiokkeen eteteak iraungo lukeena baino denbora luzeagoan onura atera izana lege kanpoko portaerari.

e) 22. artikulua lehen paragrafoko g) eta i) idatz-zatietan xedatutako arau-hausteei dagokienez, arau-haustea adingabe baten gainean egin izana arau-hausleak. 24.1.a), 25.1.b) eta 26.1.b) artikuluetan xedatutako kasuetan ez da inguruabar astungarri hori aplikatuko, eta aplikatu beharreko zehapena manu horietan aurreikusitakoa izango da.

Paragrafo horretan aurreikusitako kasu guztietan ezarri beharreko zehapena lau urtekoa ere izan ahalko da, arau-hausleak portaeran erantzukizuna larritzen duen asmorik ez dela izan egiaztatzen badu izan ezik.

#### 28. artikulua. *Arau-haustean berrerortzea.*

1. Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako berrerortzea haxe izango da: dopin-arloko bigarren edo hurrengo arau-hausteak egitea zortzi urteko aldi baten barruan, betiere arau-hauste horiek behar den moduan zigortu eta jakinarazi bazaizkio haien arduradunari.

2. Edozer arau-hausle dopin-arloko arau-hausteetan berreroriz gero, zehapena ezartzeko orduan gorabehera guztiak hartuko dira kontuan, eta Dopinaren Aurkako Munduko Kodean ezarritako izapideak erabiliko dira, nolana ere, bigarren zehapena neurtzeko. Irizpide horiek lege honen bigarren eranskinean jasotako taulan daude. Hirugarren edo hurrengo arau-hausteei dagokienez, berriz, Dopinaren Aurkako Munduko Kodean ezarritakoa jarraituko da.

#### 29. artikulua. *Diruzko isunak ezartzea.*

1. Pertsonari zehapen gisa ezartzen zaizkion isunak, kirolarien kasuan, diru-sarrerak izaten dituztenean baino ezingo dira ezarri, betiere diru-sarrera horiek kirol-jarduerarekin zerikusia badute.

2. Espainiako kirol-federazioek, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak eta, hala badagokio, Kirolaren Administrazio Auzitegiak ezarritako isunak, ordaindu ezean, nahitaez betearaziko dira bilketa-arloko indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako prozeduraren bidez bildutako isunen emaitza zuzenbide publikoko diru-sarrera izango da, eta ikerketa-helburuetarako baliatuko da. Hala, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak jarduera horretarako behar diren kredituak sortu ahal izango ditu, eta kreditu horiek lege honetan ezarritakoari jarraituz gauzatuko dira.

#### 30. artikulua. *Emaitzak indargabetzea.*

1. Kirolari batek lege honetan arau-haustetzat hartutako portaeraren bat izatea banako lehiaketa baten barruan eta lehiaketako kontrol baten ondorioz antzematea, lehiaketa horretan erdietsitako emaitzak automatikoki indargabetzeko kausa izango da, domina, puntu eta sari guztiak galduta, baita lehiaketa horretan lortutako edozer emaitza ezabatzeko behar diren ondorio guztiekin ere, erantzukizuna salbuesteko edo arintzeko kausa bat gorabehera.

2. Aurreko lerrokadan aipatutako kasua gorabehera, kirolari batek kirol-gertaera batean, edo horrekin lotuta, lege honetan aurreikusitako arau-hauste bat egiten badu, kirolari horrek aipatutako kirol-gertaeran lortutako emaitza guztiak indargabetu beharko ditu. Domina, puntu eta sari guztiak galtzea ekarriko du indargabetze horrek, bai eta kirol-gertaera horretan lortutako edozer emaitza ezabatzeko behar diren ondorio guztiak izatea ere. Aurrekoa gorabehera, baldin eta kirolariak frogatzen badu portaera arau-hauslean ez dela bere aldetik inolako erru edo zabarkeriarik egon, ez dira indargabetuko arau-haustea gertatu zen ez beste lehiaketen banako emaitzak, betiere egindako arau-hausteak ez badu eraginik izan lehiaketa horietan lortutako emaitzetan.

3. Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoaz gain, behin-behineko eteteari edo zehapenari buruzko erabakia kirolariari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik atzeratu bada, eta egindako arau-hausteak lehiaketa haietan lortutako emaitzetan eragin badu,

indargabetu egingo dira zehapena ekarri duen dopin-kontrola egin den egunetik edo arau-haustea eragin duten gertaerak izan ziren egunetik zehapena edo behin-behineko etetea ezartzen den arteko lehiaketetan erdietsitako gainerako emaitza guztiak, indargabetze horrek dakartzan ondorio guztiak aplikatuta. Domina, puntu eta sari guztiak galtzea ekarriko du indargabetze horrek, bai eta kirol-gertaera horretan lortutako edozer emaitza ezabatze behar diren ondorio guztiak izatea ere.

4. Taldeko kiroletan, betiere haien bi kidek edo gehiagok dopin-arloko arau-hauste bat egin badute lehiaketa baten barruan, partidaren, probaren, lehiaketaren edo txapelketaren emaitzak aldatzea bidezkoa den erabaki beharko dute diziplinazko organoek, lege honen 23. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraiki egoki izan litezkeen zehapenak alde batera utzita. Horretarako, egoeraren inguruabarrak haztatuko dituzte, eta orobat, dopin-arloko arau-hausteak egin dituztenek partidaren, probaren edo lehiaketaren emaitzan izandako parte hartzea erabakigarria izan ote den, eta zer parte-hartze izan duten adingabeek jokabide horietan.

### 31. artikulua. *Zehapenen ondorioak.*

1. Kiroleko dopinarekin zerikusia duten zehapenak ezartzeak, ezarritako zehapenaren izaerak hala eskatzen duenean, edozer lurralde-esparrutan kirol-lizentziak ekarritako eskubideak eskuratzea edo erabiltzea galarazten du, Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 32.4 artikuluan xedatutako moduan.

2. Beste Estatu batzuetako dopinaren aurkako agintariek edo eskudun diren nazioarteko federazioek edo erakundeek emandako ebazpen orok berehalako onarpena izango dute Espainian, betiere Dopinaren Aurkako Munduko Kodean xedatutakoaren araberrakoak badira, eta erakunde haren eskumen-esparruari badagozkio. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia arduratuko da ofizioz edo kirolariek eskatuta horiek aztertzeaz, baldin eta haien jatorriari buruzko zalantzak badaude.

Atzerriko epaitegiek dopin-arloan emandako arbitrajeko laudoak eta epai irmoak aintzat hartzeko eta betearazteko garaian 1881eko otsailaren 3ko Errege Dekretuak onartutako Prozedura Zibilari buruzko Legearen II. liburuaren VIII. tituluaren 2. atalean ezarritakoa eta Espainian aplikatu beharreko nazioarteko arauak beteko dira.

Bi kasuetan, dagokion prozeduraren izapideetan, kirolariaren lizentziak Espainian dituen ondorioak behin-behineko etengo dira. Behin-behineko eteteak, gehienez ere, jatorrizko ebazpenean ezarritako desgaituntzako zehapenak adina iraungo du.

3. Zehapena jaso duen pertsonak ezin izango du inola ere parte hartu, etenaldian, Unescoren konbentzioa sinatu dutenek, haren kideek, kirol-federazioek, klubek edo sinatzaile baten erakunde bateko beste edozer erakundek baimendu edo antolatutako ezein lehiaketa edo jardueratan, ezta edozer liga profesionalak edo nazioarteko edo nazioarteko gertaeren edozer antolatzailek baimendu edo antolatutako lehiaketetan ere.

Zehapena jaso duen pertsonak baimena eskatu ahal izango dio Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari hezkuntzako edo errehabilitazioko programetan parte hartzeko.

Etenaldian dagoen edozer kirolari edo pertsonari kontrolak egin ahal izango zaizkio lege honen 11.2 artikuluan adierazitako moduan.

4. Dopinaren aurkako edozer arau-hauste egiteagatik zigortutako pertsonak, baldin eta 22. artikuluan bigarren paragrafoko b) idatz-zatian ezarritakoak ez badira, herri-administrazioek edo herri-administrazioaren baten partaidetza duen edozer erakundek zuzenean emandako finantza-laguntzarik gabe geldituko dira, baita haietatik bere kirol-jardunarekin lotuta eskura ditzakeen beste edozer abantaila ekonomiko edo zerga-onurarik gabe ere. Eskuratutako zenbatekoak berreskuratze orduan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta hori garatzeko xedapenetan, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa edo antolamendu juridikoak baimendutako beste edozer beteko da.

5. Lau urtez baino gehiagoz lizentziarik gabe zigortutako kirolariak, lau urte horien ostean, Estatukoa baino esparru txikiagoko kirol-jardueretan parte hartu ahal izango du;

halere, horietan erdiesten dituen emaitzek ez diote inola ere nazioko edo nazioarteko lehiaketetan parte hartzea ahalbidetuko.

### 32. artikulua. *Errehabilitazioa.*

1. Dopina dela-eta zigortutako kirolari batek errehabilitazioa erdietsi ahal izan dezan, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari aldeztatik eskaera eginda, 11.2 artikuluan xedatutako kontrolak egin dizkietela egiaztatu beharko du, eta, hala badagokio, 11.3 artikuluan aurreikusitako lokalizazio-betebeharrak bete dituela, baita zehapen osoa eta titulu honetan aurreikusitako neurri osagarri guztiak ere.

2. Baldin eta zigortutako kirolariak lehiaketa utzi badu eta aurreko paragrafoan xedatutako kontrola egiten ez badu, errehabilitazioa lortu ahal izateko, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari jakinarazi beharko dio, eta lehiaketatik kanpoko kontrolak egin beharko zaizkio lehiaketa utzi duela jakinarazten duenetik eteteko zehapena guztiz bete arteko adina denboran.

### 33. artikulua. *Agintari judizialei laguntzea.*

1. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, bere jardunean, Zigor Kodearen 361 bis artikuluan xedatutako delitu izan litezkeen portaeren berri jasoz gero, berehala jakinaraziko die Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoei, Fiskaltzari edo eskuduna den epaileari, prozesua izapidetu dadin.

2. Zigor Kodearen 361 bis artikulua usteko arau-hauste batengatik abiatutako zigor-prozesu bat izapidetzen denean, instrukzio-epaileak kirolarien bizitza edo osasunerako arriskurik dagoen adierazten duen txosten bat egiteko eskatu ahal izango dio Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari. Ondorio horietarako soilik, txostena egiteko bere iritziz beharrezko diren instrukzioko eginbideak edo datuak emango dizkio agentziari. Fiskaltzak eginbide hori egiteko ere eskatu ahal izango dio instrukzio-epaileari; nolahi ere, 20 eguneko epean egin beharko da, txostena eskatzeko ebazpen judiziala agentziari jakinarazten zaion egunetik hasita.

3. Txostena egindakoan, epaileak jarduketak jarraitzen baditu, jakinarazi egingo dio Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari.

Kasu horretan zein txostenik eskatu ez den beste edozer kasutan, arau-hauste penalaren usteko arduradunen gainean izapidetu litezkeen zehapen-prozedura guztiak etengo ditu Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, gertaera eta oinarri berak direla egiaztatzen duen unetik.

Zigor-prozesuaren instrukzio-aldia hasteak edo jarraitzeak esan nahi du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, bidezkoa bada, betiere interesdunei entzunaldia egin ondoren, federazio-lizentzia etetea erabaki dezakeela Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen 10. artikulua printzipioei jarraituz.

Kautelazko neurriaren iraupena delituaren erantzulearen zigorrak eragin dezakeen neurritik deskontatuko da.

Zigor Kodearen 361 bis artikuluan xedatutako delitu bat egiteagatik epai irmo batek amaitzen badu zigor-prozesua, hark, automatikoki, lotutako neurri gisa, federazio-lizentzia etetea ere ekarriko du lege honetan administrazioko arau-hauste baliokideetarako ezarritako epe berean, baita berrerortzea dagoenean ere. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak hartuko du neurri hori, zigorraren berri jasotakoan. Kasu horretan, lotutako neurriak eragin duenari ezin izango zaio zehapenik ezarri, betiere delituaren eta administrazioko arau-haustearen artean gertaera, subjektu eta oinarri berak daudela egiaztatzen bada.

4. Baldin eta, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak egindako txostenaren ondorioz edo beste edozer kausagatik, instrukzio-epaileak uste badu ez dela egokia zigor-jarduketak jarraitzea, zigor-prozedura bukatu dela jakinaraziko dio Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari, eta horrek bidean dauden zehatzeko administrazio-prozeduren izapideak hasiko edo, hala badagokio, jarraituko ditu. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak largespen libreko autoa edo absolbitzeko

epaia igortzeko eskatu ahal izango du, han jasotako gertaera frogatuak egiaztatuzat jotzeko.

5. Zehatzeko prozedurak jarraitzeko beharrezko diren gauzatutako instrukzio-eginbideak igortzeko eskatu ahal izango du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak. Eskaera horri instrukzio-epaileak erantzungo dio, interesdunei entzunaldia egin ostean, 20 eguneko epean. Onuragarri izan zaizkien agiriak ere igortzeko eskatu ahal izango dute interesdunek entzunaldi horretan. Epailearen ebazpenak erabateko errespetua izango dio proportzionaltasun-printzipioari; hala, printzipio hori aplikatzeak baimentzen dituen eginbideak baino ez dizkio emango administrazioari, arrazoitutako ebazpen bidez.

Zigor-kausa dagoeneko ez badago instrukzio-aldian, egindako proben edo instrukzio-eginbideen gaineko jarduketaz arduratzen ari den jurisdikzio-organoari egingo zaio eskaera hori.

Dagoeneko epai bat eman bada, horren bidez frogatuzat emandako gertaerek administrazioa lotuko dute, hori Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari igorri edo ez. Arau bera beteko da aldez aurretik administrazio-ebazpen irmo bat emanaz gero.

6. Edozer epailek edo auzitegik, dopin-arloko administrazio-arauek bat agian gertatu dela jakin bezain laster, erruduntasun-testigantza helaraziko dio Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari.

Aurreko lerrokan aipatutako neurria har dezan eskatu ahal izango dio epaileari Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak hartarako arrazoiak daudela egiaztatzen duenean.

Horrelakoetan, zehatzeko prozedurak hasiko ditu Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, eta, betiere interesdunei entzunaldia egin ondoren, hala badagokio, federazio-lizentzia eteteko kautelazko neurria ere hartuko du. Ebazpen hori lege honetan aurreikusitako errekurtsioen sistema orokorren mende egongo da.

#### 34. artikulua. *Diziplina-erantzukizuna azkentzea.*

Diziplina-erantzukizuna azkendu egingo da:

- a) Zehapena bete delako.
- b) Preskribatu delako.

#### 35. artikulua. *Arau-hausteak eta zehapenak preskribatzea.*

1. Lege honetan ezarritako arau-hausteak 8 urteren buruan preskribatuko dira.

Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-haustearen preskripzio-epea. Zehatzeko prozedura, interesduna jakitun dela, hausteak etengo du preskripzioa.

2. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako isuneko zehapenak hiru urtera preskribatuko dira, eta bi urtera arau-hauste larriengatik ezarritakoak.

Desgaikuntzako zehapenak, jakinarazpenik ez dagoenean, bost urtera preskribatuko dira, arau-hauste oso larriengatik ezarritakoei dagokienez, eta hiru urtera arau-hauste larriengatik ezarritakoen kasuan.

Zehapena jartzea agintzen duen ebazpena irmo bihurtu den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen zehapenaren preskripzio-epea.

Betearazteko prozedura, interesduna jakitun dela, hausteak etengo du preskripzioa.

#### 36. artikulua. *Hautematen laguntzea.*

1. Lege honen arabera ezarri beharreko kirolari baten edo beste pertsona baten eteteko zehapena murriztu ahal izango da, artikulua honetan xedatutako moduan, baldin eta kirolariak edo beste pertsona batek funtsezko laguntza ematen badu beste kirolari batek dopinaren aurkako arauen arau-hauste bat, Zigor Kodearen 361 bis artikuluan jasotako delitu bat edo arau profesionalen arau-hauste bat egin duela deskubritzeko edo frogatzeko.



2. Aurreko paragrafoan xedatutako etenaldia murriztea ez da dagokion etenaldiaren hiru laurdenak baino handiagoa izango, eta federazio-lizentzia eskuratzeko biziarteko desgaiuntzako zehapenari dagokionez, 8 urtekoa izango da gutxienez etenaldia.

3. Etenaldiaren murrizketa erabakitzeko garaian kirolariak egin duen dopinaren aurkako legearen arau-haustearen larritasuna eta emandako laguntzaren garrantzia hartuko dira kontuan. Etenaldia zati batean murriztea erabakitzeko, nahitaezkoa izango da Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, eskudun organoa izan ezean, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak eta dagokion nazioarteko federazioak txosten bana egitea; halaber, hori gauzatu nahi duen organoaren ebazpenak errekurritzeko zilegitasuna duten pertsona eta organo guztiei jakinaraziko zaie.

4. Kirolariak edo beste pertsona batek aurreko paragrafoetan jasotako funtsezko laguntza hori azkenean eman ezean, etenaldia osorik bete beharko da. Ondorio horietarako, zehapenen preskripzio-epaia etenda egongo da, harik eta eskudun den organoak artikulua honen lehen paragrafoan aipatutako legez kontrako jardueri buruz ebazpena ematen duen arte.

#### *2. atala. Dopina dela-eta zehapenak ezartzeko prozedura*

#### *37. artikulua. Kirolean dopina zigortzeko diziplinazko prozeduren arloko eskumena.*

1. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari dagokio Estatuko edo autonomiako kirol-lizentzia homologatuarekin eginiko kirol-jarduerako dopin-arloko diziplinazko ahalmena.

Autonomia-erkidegoek hitzarmenak egin ahal izango dituzte dopin-arloko zehatzeko eskumena Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak gauza dezan autonomia-esparruko lehiaketei edo arau-hausleei dagokienez.

Salbuespen gisa, baldin eta, autonomia-esparruko lehiaketei aplikatu beharreko eskumena zehatzeko arauen arabera, autonomia-erkidego batek ere ez badu zehatzeko eskumenik autonomia-lizentziadun kirolari bati dagokionez, proba haren erkidegoko lurraldetik kanpo egin delako, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak hartuko du bere gain zehatzeko eskumena, eta dagokion diziplinazko prozedura hasiko du.

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak ez du zehatzeko eskumenik izango nazioarteko mailakotzat ofizialki hartutako kirolariei edo nazioarteko lehiaketetan parte hartzen duten kirolariei dagokienez. Horrelakoetan, Espainiako federazioek izango dute eskumena. Eskumen hori gauzatuz ematen diren egintzak dagokion nazioarteko federazioak eskuordetuta eman direla joko da, eta ez dira administrazio-egintzat hartuko. Salbuespen gisa, nazioarteko federazioak edo eginkizun baliokidea duten erakundeek hartu ahal izango dute beren gain eskumen hori, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziarekin dagokion hitzarmena sinatu ondoren; hitzarmen horretan eskumena zer baldintzatan hartuko den ezarriko da. Hitzarmenak ezarri ahal izango du eskumena Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak gauzatuko duela baina titulartasuna federazio edo erakunde sinatzailearen esku geldituko dela. Kasu horietan guztietan, 1.3 artikulua beteko da aplikatu beharreko arauari eta prozedurari dagokienez.

2. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari dagokio diziplinazko espedienteak izapidetzea eta ebaztea. Organo ezberdinen esku gelditu beharko dira espedienteen ebazpena eta instrukzio-aldia.

3. Lege honetako aginduak ez betetzea dela-eta egin beharreko diziplina-espedienteak izapidetzea eta ebaztea, baldin eta Espainiako kirol-federazioetako, liga profesionaletako eta, horrelakorik badago, antzeko eginkizunak dituzten erakundeetako zuzendari-karguei eragiten badiete, berriz, Kirolaren Administrazio Auzitegiaren ardurara izango da administrazio-azialdi bakarrean.

Prozedura hori Kirolaren urriaren 15eko 10/1990 Legeko arauen eta garapeneko araudiaren arabera bideratuko da.

4. Kirolari batek edo beste pertsona batek erretiroa hartu eta kirol-jarduera amaitzen badu dopin-arloko prozedura baten barruan dagoelarik, horretaz arduratzeko eskudun den organoak hori burutzeko eskumena izango du oraindik. Dopin-arloko zehapen-

prozedura hasi aurretik hartzen badu erretiroa, dopinaren aurkako arauen ustezko urraketa egin zen unean eskuduna zen organoa arduratuko da zehatzeko prozedura horretaz.

38. artikulua. *Lizentziaren eskubideen eraginkortasuna galtzea.*

Baldin eta, debekaturiko gaien eta metodoen zerrendan ezarritakoarekin bat etorriz «gai espezifiko» gisa hartzen ez den debekaturiko gai bat hautematen denean, A lagin baten azterketan aurkako emaitza analitiko bat egiaztatzen bada, berehala galduko dira kirol-lizentziak eragindako eskubideak.

Dopin-arloko zehapen-prozedura hasteko ebazpenarekin batera jakinaraziko da neurri hori. Ebazpenak eragiten dionak alegazioak aurkeztu ahal izango ditu hartutako neurriaren gainean, hura berriro azter dadin.

Bidean dagoen dopin-arloko beste edozer zehapenetan, eman daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko behar diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu ebazpena emateko eskumena duen organoak, edonoiz, baita federazio-lizentzia behin-behineko eten ere, betiere arrazoitutako erabaki bidez eta audientzia- eta proportzionaltasun-printzipioak errespetatuz. Prozeduraren objektua arau-hauste oso larritzat hartutako gertaerek osatzen badute baino ezin izango da hartu federazio-lizentzia behin-behineko eteteko neurria.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera hartutako lizentziaren behin-behineko etetea automatikoki kenduko da zehapena ezartzeko organo eskudunak ez badu prozedura ebatzi hiru hilabeteko epean, prozedura hasten denetik kontatzen hasita, betiere atzerapena ez bada gertatu zehapen-prozedurak eragindakoari egotz dakizkiokeen kausengatik.

39. artikulua. *Diziplina-prozedura.*

1. Diziplinazko prozedura Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren ebazpenaz hasten da dopina kontrolatzeko laborategi jarduleak zuzenean egindako jakinarazpenaren ondorioz, edo dopin-arloko arau-hauste bat egon litekeela ondorioztarazten duten frogak jasotzearen edo gertaerak ezagutzearen ondorioz. Lege honen 15.5 artikuluan xedatutako kasuan, kontrol bati, baliozko justifikaziorik gabe, uko egin izana egiaztatzen duen agiria bidaliko dio dagokion agenteak, luzatu gabe, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari. Agentziak agiri hori jasotzeak ahalbidetuko du diziplinazko prozedura hastea.

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak eginbide erreserbatuak izapidetu ahal izango ditu prozedura hasi aurretik, berau irekitzeko zantzu nahikorik dagoen erabakitzeke.

Jakinarazpen hori jaso ondoren, diziplina-prozedura hasiko da, eta laborategiko analisisen eta jakinarazpenaren gainerako elementuen berri ez du izango diziplina-organoa ez den beste inolako organok.

Laborategiek beharrezko neurriak hartuko dituzte, jakinarazpen hori kirolariaren konfidentzialtasuna eta anonimotasuna gordetzea ahalbidetzen duten baldintzetan egin dadin.

Behin lege honen 35. artikuluan aurreikusitako preskripzio-epaia betetzen denean edo kasuan kasuko diziplina-prozeduran edo auzi kriminalean ebazpen irmoa ematen denean, dopatzea kontrolatzeko laborategiek ezingo dute gorde pertsona identifikagarri bati lotutako laginik.

2. Diziplina-prozedura ofizioz hasten eta izapidetzen da, izapide guztietan.

Aurrekoa gorabehera, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean salatu ahal izango dira dopin-arloko ustezko portaerak edo jarduerak egin direlako zantzuak ematen dituzten gertaerak. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak prozedura bat ezarriko du salatzailearen nortasuna sekretupean gordetzeko diziplinazko prozeduretan eta haien aurreko jardueretan esku hartzen duten guztien aurrean. Salatzailea ez da hartuko zehapen-prozeduraren partetzat.

Dopin-arloko administrazioko arau-hauste bat izan litekeela dakien agintari edo funtzionario publiko orok, luzatu gabe, jakinarazi egin beharko dio Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari.

3. Prozedura horiek lehentasunezkoak izango dira, lege honetan ezartzen diren epeak betetze aldera.

4. Dopin-arloko zehapen-prozeduran, administrazioak eta zehapen-prozedurak eragindako pertsonak zuzenbidean onar daitezkeen baliabide guztiak erabil ditzakete, baita pasaporte biologikoa ere, horren gaineko daturik egonez gero. Proba horiek batera baloratu beharko dira kritika zintzoaren arauen arabera.

5. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, froga-arau berezi hauek aitzakiarik gabe aplikatu beharko dira:

a) Dopin-kontrol bateko aurkako emaitza analitiko bat egozketa-froga nahikoa izango da lege honen 22.1. artikuluan a) eta b) idatz-zatietan tipifikaturiko arau-haustek daudela jotzeko. Ondorio horietarako proba nahikoa izango da hurrengo kasuetako edozein gertatzea: kirolariaren A laginaren azterketan debekaturiko gai bat edo haren metabolitoak edo markatzaileak hautematea, baldin eta kirolariak B lagina aztertzeari uko egiten badio eta hori ez bada aztertzen; B laginaren azterketak kirolariaren A laginaren azterketan hautemandako gai debekatua edo haren metabolitoak edo markatzaileak berrestea.

b) Kontrolak egiteari uko egin edo haiei aurre eginez gero, ukoa egiaztatzen duen agiriak, lege honen 15.5 artikuluan aipatzen dituen gaitutako langileek sinatutakoak, frogabalia izango du, interesatuek beraiek dagozkien eskubideak edo interesak defendatzearen baliozko justifikazioa zegoela egiaztatzeko aurkez ditzaketen frogei kalterik egin gabe.

c) Suposatzen da Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak egiaztatutako dopin-kontrolerako laborategiek aplikatu beharreko araudiaren arabera egiten dituztela laginaren azterketak eta aplikatzen dituztela zaintza-prozedurak, arau horiek ez betetzeak aurkako emaitza analitikoaren arazoizko kausa izan litekeela egiaztatzen duen aurkako frogarik ezean. Kirolariak edo beste pertsona batek froga dezake laborategiak aplikatu beharreko erregulazioa urratu duela, eta horrek agian eragin duela prozedura hastea ekarri duen aurkako emaitza analitikoa; horrela gertatuz gero, eskudun organoak bere gain hartu beharko du aplikatu beharreko araudia urratzeak aurkako emaitza analitikorik ez duela eragin frogatzeko karga.

d) Dopin-kontrolerako prozeduretan aplikatu beharreko arau baten urraketak, baldin eta aurkako emaitza analitiko baten edo beste arau-hauste baten zuzeneko kausa ez bada, ez du emaitza baliorik gabe uztea ekarriko. Baldin eta kirolariak edo beste pertsona batek frogatzen badu aplikatu beharreko araudiaren urraketa aurkako emaitza analitikoaren edo arau-haustearen kausa izan zitekeela, eskudun organoak egiaztatu beharko du ez dela hala izan.

e) Ustezko arau-hausleak kalte egiten dioten gertaera eta presuntzio guztiak gezurtatu ahal izango ditu, baita artikuluan honen bosgarren paragrafoko a) idatz-zatian aipatutakoak ere, eta defentsarako behar dituen gertaera eta gorabehera guztiak frogatu.

6. Dopin-arloko diziplinazko prozedurak, gehienez ere, sei hilabeteko epearen barruan bukatu behar du, prozedura hasteko erabakia hartzen denetik aurrera zenbatuta. Aurreko paragrafoan ezarritako epemuga igaro eta ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, prozedura iraungita geratuko da. Ofizioz edo interesdunak eskatuta eman ahal izango da iraungitzeko deklarazioa, eta jarduketak artxibatzea ekarriko du. Aurrekoari kalterik egin gabe, horrek ez du eragotziko preskripzioko legezko epearen barruan beste zehapen-prozedura bat hastea.

7. Dopinaren alorreko diziplina-prozedura ebazpen bidez edo iraungipenez bukatuko da. Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; hala, berraztertu egin daiteke lege honen 40. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

8. Eskudun diziplina-organoei ezarritako zehapenak berehala betearaztekoak dira, zehatzeko ebazpena jakinarazten den egunetik, betiere ebazpen horren kontrako

errekurtsoak aztertu behar dituen organoak horiek etetea erabaki ezean. Eragindako subjektuari behar den moduan jakinarazte hutsagatik izango dituzte ondorioak lizentzien eteteek, betearazteko egintza zehatzen beharrik gabe. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak 15 eguneko epean jakinarazi beharko ditu zehatzeko ebazpenak. Jakinarazpenaren atzerapenak ez dio eragingo emandako ebazpenaren baliozkotasunari. 35. artikulua kasuetan desgaikuntzako zehapen bat preskribatzen bada, jakinarazpena ez egitearen arduradunen aurkako diziplina-neurriak hartuko ditu Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak.

Hori gorabehera, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziari, nazioarteko eta nazioko federazioei eta lege honen 40.4 artikuluan aipatutako gainerako erakundeei jakinaraziko zaizkie zehatzeko ebazpen horiek.

Aurrekoari kalterik egin gabe, eragindako subjektuak arau-haustea diren gertaerak onartzen baditu eskudun organoak hasteko ebazpena jakinarazten duenetik eta, edozelan ere, berriro lehiatu aurretik, dopin-kontrolaren egunetik edo gertaerak izan diren egunetik zenbatzen hasi ahalko da etenaldia; dena den, etenaldiaren erdia gutxienez zehapena ezartzen den prozeduraren ebazpen-egunetik aurrera bete beharko da.

Lege honen 38. artikuluan aurreikusitako behin-behineko etetearen neurria hartzen bada, azkenean ezarritako etete epe osotik kenduko da haren iraupena, betiere etete hori errespetatzen bada. Kirolariak eta beste pertsona batek lehiaketari bere borondatez utzi edo haren taldeak zigortu izanak ez du eraginik izango bete beharreko azken epearen gainean.

Prozeduran kirolariari edo beste pertsona bati egotzi ezin zaion atzerapen nabarmenik gertatuz gero, etenaldia aurreko data batetik zenbatzen hasteko agindu ahal izango du eskudun organoak, dopin-kontrola edo arau-haustea egin zen eguna barne.

9. Lege honen 22. artikuluan xedatutako arau-hauste oso larriak egiteagatik zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak argitaratu egin beharko ditu horiek eman dituen organoak. Bide telematikoa lehenetsiko dira horiek argitaratzeko orduan.

Zehapen irmoak argitaratuko dira, eta argitalpenean datu hauek baino ez dira sartuko: arau-hauslea, kirol-espezialitatea, urratutako manua eta ezarritako zehapena. Ez du erabilitako metodoari edo gaiari buruzko daturik jasoko, guztiz ezinbestekoa ez bada.

Argitalpena ez da mantenduko zehapenaren iraupen-epea amaitu ondoren.

### 3. atala. Dopin-arloko zehapenak berrikustea

40. artikulua. *Kiroleko dopin-arloko administrazio-errekurtso berezia.*

1. Kirolaren Administrazio Auzitegiaren aurrean errekurritu ahal izango dira Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak lege honen arabera hartutako ebazpenak, edo gaiaren mamiaz zuzenean edo zeharka erabakitzen duten izapide-egintzak, prozedura jarraitzea ezinezkoa dela xedatzen dutenak eta eragindakoen eskubide eta interes legitimoak babesik eza edo kalte konponezina eragiten dietenak.

Nolanahi ere, ebazpen hauek errekurritu ahal izango dira:

a) Dopinaren aurkako alorreko arau-haustea izan direla erabakitzen dutenak, zehapena ezartzekoak edo absolbitzekoak izan.

b) Lege honetan aurreikusitako arauak urratzeagatik abiatutako edozer prozedura artxibatzen dutenak –dela formazko arrazoiengatik, dela funtsezko kausengatik–, prozedurarekin ez jarraitzea ebatzita.

c) Zehapen bat urratu dela adierazten dutenak, etenaldian parte hartzearen debekua ez betetzea barne.

d) Ematen dituen organoaren eskumenik eza adierazten dutenak.

e) Behin-behineko etetea ezartzen dutenak.

f) Erabilera terapeutikoko baimenak ukatzen dituztenak eta lege honen arabera eman direnak.

2. 37.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ofizialki nazioarteko mailakotzat hartzen direlako lege honen aplikazio-eremuan jasota ez dauden kirolariei dagokienez emandako

ebazpenak edo nazioarteko lehiaketa baten esparruan ematen direnak errekurritu ahal izango dira, betiere dagokion nazioarteko federazioaren araudian aurreikusitako gatazkak konpontzeko sistemaren arabera.

3. Hogeita hamar eguneko epea egongo da errekurtsua jartzeko, ebazpena jakinarazi ondoko egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori amaiturik, ebazpen irmoa izango da.

4. Emandako ebazpenak eragindako pertsona fisikoek edo juridikoek izango dute errekurritzeko zilegitasuna, eta edozelan ere:

- a) Ebazpenak eragindako kirolariak edo gizabanakoak.
- b) Ebazpenean izan litekeen aurkako alderdiak edo erabakiak kaltetutakoek.
- c) Dagokion nazioarteko kirol-federazioak.
- d) Eragindako gizabanakoa bizi den herrialdeko dopinaren aurkako erakundeak.
- e) Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak.
- f) Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak.
- g) Nazioarteko Batzorde Olinpiarrek edo Nazioarteko Batzorde Paralinpiarrek, baldin eta ebazpena Joko Olinpiarrei edo Joko Paralinpiarrei badagokie.

5. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean gora jotzeko errekurtsorako ezarritako arauen arabera izapidetuko da Kiroleko dopin-arloko errekurtsu berezia, berezitasun hauekin:

a) Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, hasteko idazkia Kirolaren Administrazio Auzitegiaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Nolanahi ere, ebazpen horiek Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziari jakinarazi beharko dizkie Kirolaren Administrazio Auzitegiak.

b) Epe horretan ez bada ebazpen espresurik ematen, errekurtsua ezetsi dela ulertu ahal izango dute interesatuek.

c) Arlo horretako Kirolaren Administrazio Auzitegiaren ebazpenak berehala betearaztekoak dira; administrazio-bideari amaiera ematen diote, eta haien kontra administrazioarekiko auzietako errekurtsua aurkeztu ahal izango dute artikulua honen laugarren paragrafoan aipatutako zilegitasuna duten pertsonak.

### III. KAPITULUA

#### Osasunaren babesak

##### 1. atala. Osasunaren babesaren plangintza

41. artikulua. *Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren jardura.*

1. Kirolarien eta kirol-jarduera egiten dutenen osasuna babesteko politika eraginkor bat ezarriko du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak.

Politika hori kirol-jardueraren esparruko osasuna babesteko plan batean islatuko da; hark ohiko arriskuak zein bereziak zehaztuko ditu, bereziki emakumeen, gizonen eta adingabeen beharrezko kasu eginez, baita desgaitasunagatik behar espezifikoak ere; halaber, hautemandako arriskuen arabera beharrezko izan litezkeen prebentzio-, kontserbazio- eta suspertze-neurriak ere adieraziko ditu.

2. Plan horrek, orobat, kirolariei beraiei kirol-jardunaren ohitura eta era osasungarriak buruzko orientazioa eta prestakuntza emateko hainbat tresna didaktikoak ere jaso beharko ditu, baita zuzendaritza-langileei, teknikari eta entrenatzaileei eta edozer mailatako kirol-jardueran lan egiten duten osasun-langileei bideratutakoak ere.

3. Aurreko paragrafoetan aipatutako jardueretan bereziki zainduko da arrisku berezia izan dezaketen taldeak (adingabeak edo desgaituek, adibidez) parte hartzen duten Estatu-esparruko kirol-lehiaketetan eraginkorrak direla. Xede horretan, autonomia-

erkidegoekin eta tartean diren tokiko erakundeekin lankidetzeta eta koordinazioa bideratzeko tresnak ere sustatuko dira.

#### 42. artikulua. *Baliabide pertsonalak eta materialak.*

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, autonomia-erkidegoekin eta tokiko erakundeekin elkarlanean, kirol-instalazio guztietan kirol-jarduera seguruagoa izan dadin behar diren elementu zein baliabide material eta pertsonal guztiak zehaztuko ditu, betiere bakoitzaren ezaugarriak kontuan harturik.

#### 43. artikulua. *Izaera espezifikoak neurriak.*

1. 41. artikuluan ezarritako planari dagokionez, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak egin behar ditu jarduera hauek, beharrezko izan litezkeen beste batzuekin batera:

- a) Irizpideak eta arau teknikoak proposatzea, kirol-modalitateetako lehiaketak eta probak kirolarien osasunari edo osotasunari ez eragiteko moduan antola daitezzen.
- b) Kirolariei eman beharreko osasun-laguntzari buruzko proposamenak egitea, baita kirol-lehiaketetan egon beharreko osasun-laguntzaren arloko gutxieneko neurriak buruzkoak ere.
- c) Kirolarien osasun-tratamenduari eta hori estaltzeko sistemei buruzko proposamenak egitea.

2. Aurreko neurriak hartzeko eskumena autonomia-erkidegoei dagokienean, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak haiekin modu koordinatuan jardungo du erabakitzen diren lankidetzeta-mekanismoen bitartez.

#### 44. artikulua. *Ikerketa.*

1. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, Estatuko Osasun Sistemarekin elkarlanean eta Estatuko ikerketa-planen esparruan, ikerketa zientifikoa sustatuko du eritasunen tratamenduan eta prebentzioan kirol-jarduera aplikatzeko eta dopinaren aurka borrokatzeko, betiere emakumeen, gizonen eta adingabeen beharrezkoak aintzat hartuta, baita desgaitasunagatik premia bereziak ere.

2. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, ikerketaren xedeak hobeto lortzearen, kirol-medikuntzan aritzen diren elkarte zientifikoak zein zentro eta profesionalak beren borondatez atxikitzea sustatuko du, alor horretako zentro adituen sare bat eratzeke; hartarako, egoki diren lankidetzeta-hitzarmenak izenpetuko ditu.

3. Sareko kideek ematen duten informazioa Osasuna Babesteko Plana berregituratzeko eta eguneratzeko erabiliko da, izaera pertsonaleko datuak babesteko araudia erabat errespetaturik.

#### 45. artikulua. *Prestakuntza-curriculumak.*

Kirol-teknikarien eta kiroleko osasunarekin zerikusia duten gainerako tituluen prestakuntza-programetan zehaztutako espezifikoak erantsiko dira irakasleek beharrezko jakintzak izan ditzaten fisiologia-, higiene-, biomekanika-, nutrizio-esparruan eta horrekin lotura duten gainerako arloetan, baita eritasunen tratamenduan eta prebentzioan gorputz-jarduera erabiltzeari dagokionez ere, bereziki emakume, gizon eta adingabeen behar espezifikoak, baita desgaituenak ere, aintzat hartuta.



## 2. atala. Gutxieneko neurri espezifikoak

### 46. artikulua. Osasun-azterketak.

1. Osasunerako arriskuak hobeto prebenitzeko beharrezkoa dela ikusitako kiroletan, federazio-lizentzia eman aurretik osasun-azterketak egiteko betebeharra xedatuko du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak arian-arian.

2. Osasun-azterketa horien bitartez kirolariaren osasuna babestu nahi da kirol-jarduerari dagokionez. Hau hartuko da kontuan azterketak diseinatzean eta kirol-modalitate bakoitzari aplikatzean:

- a) Egin behar den kirol-modalitatearen ezaugarriak.
- b) Dena delako kirol-modalitateak eskatzen dituen ahalegina eta gainerako baldintza fisikoak.
- c) Inguruneko ingurumen-baldintzak.
- d) Emakumeen eta gizonen, adingabeen eta desgaituen behar espezifikoak.

3. Erregelamenduz zehaztuko dira artikulua honetan xedatutako betebeharra eta azterketen modalitateak eta irismena.

### 47. artikulua. Goi-mailako kirolarien osasun-azterketak eta -jarraipenak.

43. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak goi-mailako kirolarien osasuna jarraitzeko sistema bat ezarriko du haien kirol-jardueraren arriskua egoki aseguratzen eta harekin lotutako istripuak eta eritasunak prebenitzen laguntzeko.

Estatuko Administrazio Orokorraren kirol-medikuntzaren bitartekoen lehentasuna izango da jarduera hori.

### 48. artikulua. Kirolari profesionalen osasunaren jarraipena eta babesa.

1. Gizarte Segurantzaren sistemaren jardun babeslearen esparruan, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateei ematen dizkien babes-jarduerak, erakunde horiei kirolari profesionalen estaldura dagokienean, osasuna babesteko eta horrelakoek izan ditzaketan lan-izaerako istripuen arriskuak prebenitzeko programa espezifikoak garatzea ere jaso behar dute, baita kirol-jardunaren beraren ondorioz izan litezkeen lesio edo patologietatik osatzeko unean-unekeo jarduerak egitea ere.

2. Ondorio horietarako, erakunde horiei bere esku dauden irizpideak, azterlanak, estatistikak eta, oro har, informazio guztiak emango dizkie Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, era horretan kirolari haien babes eraginkor eta espezializatuagoa lortzen laguntzeko.

### 49. artikulua. Kirolariaren Osasun Txartela.

1. Kirolariaren osasun-txartela Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak goi-mailako kirolariaren izaera zehazki aitortuta duten kirolariei edota kontratuan kirolari profesional gisa hartzen direnei ematen dien txartela da; halaber, Espainiako kirol-federazioek hartarako egiten dituzten hitzarmen espezifikoaren esparruan federatutako gainerako kirolariei ere ematen die.

2. Kirolariak eta hori artatzen duten osasun-langileek gaitz baten aurrean aplikatu beharreko tratamendua erabakitzeko orduan ahalik eta informaziorik onena edukitzea du helburutzat osasun-txartelak. Kirolariak eta hori artatzen duten langileek baino ezin izango dute eskuratu bertan jasotako informazioa.

3. Osasun-txartelaren edukia eta informazioa erregelamenduz zehaztuko dira Datuak Babesteko Espainiako Agentziak txostena egin ondoren.

50. artikulua. *Kirol-jarduera bukatu osteko osasun-babesa.*

1. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak, Estatuko Osasun Sistemarekin elkarlanean, programa espezifiko bat ezarriko du kirol-jarduera amaitu duten eta hark ekarritako ondorioak dituzten kirolarien osasuna babesteko eta susperraldi edo tratamendurako.

2. Programa horren nondik-norakoak erregelamenduz zehaztuko dira; haiek ezartzeko garaian, halaber, hauen borondatezko parte-hartzea sustatuko da: 44.2 artikulua aipatutako sarea osatzen duten zentroak, kirolarien elkarteak, kirol-federazioak, mutualitateak eta laguntzeko interesa duten gainerako erakunde publikoak edo pribatuak.

3. atala. *Kirolean dopina prebenitzearekin lotutako osasun-neurriak*

51. artikulua. *Osasunaren jarraipenak.*

1. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak parametro biologikoak jarraitzeko programa espezifikoak ezarri ahal izango ditu kirol-jarduna baldintza segurutan eta dopin-arloko jarduerarik gabe edo norberaren gaitasunak modu artifizial batez handitu gabe kontrolatzearen.

2. Kontrol horiek, bereziki, arrisku handieneko kirolariei ezarriko zaizkie, betiere Osasuna Babesteko Planak xedatutakoaren arabera, baita kirol-maila handienekoei ere.

Jarraipen horien emaitzak erabat konfidentzialak izango dira, eta dagokion kirolariak baino ez du haiei buruzko informaziorik jasoko.

## IV. KAPITULUA

### Dopinari buruzko datuen tratamendua

52. artikulua. *Langile publikoen erantzukizuna.*

1. Dopina kontrolatzeko eginkizunak burutzen dituzten langileek konfidentzialtasunez eta isilpean mantendu beharko dituzte lana dela-eta ezagutzen dituzten gaiak.

2. Beren zereginetan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak bakar-bakarrik dopin-kontrolak egiteko erabili ahal izango dira, eta, beharrezko izanez gero, bai eta administrazioko edo delituzko arau-haustek izan daitezkeen ekintzak salatze ere. Zientzia-azterketetarako ere erabili ahal izango dira, betiere pertsonen nortasunik jakinarazi ezean.

3. Bidezkoa den erantzukizuna alde batera utzita, aplikatu beharreko legeriarekin bat etorritik, bereziki izaera pertsonaleko datuak babesteko arloan, dopin-arloko kontrolei eta prozedurei buruzko datuak gordetzeko eta, hala badagokio, zabaltzeko arau-haustek arau-hauste oso larritzat hartuko dira langile publikoen legeriaren ondorioetarako.

Halaber, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 54.2.d) artikulua aipatzen duen kontratuaren ez-betetzat hartuko dira portaera horiek herri-administrazioen zerbitzupeko lan-kontratudun langileei dagokienez eta, edozelan ere, hutsegite oso larritzat hartuko dira Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legean edo aplikatu beharreko arau konbentzionaletan xedatutako diziplina-araubidearen ondorioetarako.

4. Erantzukizun horiek zehaztea funtzio publikoaren arloan eskudun diren diziplina-organoen esku egongo da.

53. artikulua. *Zuzendarien, kirol-erakundeetako langileen eta beste pertsona batzuen erantzukizuna.*

1. Kirol-erakundeetako zuzendariak eta gainerako langileek beren zereginetan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak bakar-bakarrik kontrolak egiteko erabili ahal

izango dira, eta, beharrezko izanez gero, bai eta administrazio-ko edo delituzko arau-hausteak izan daitezkeen ekintzak salatze-ko ere.

2. Bidezkoak diren erantzukizunei kalte egin gabe, legeria espezifikoa- ren arabera, aurreko paragrafoan aipatutako arau-hausteak oso larritzat hartuko dira Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 76.2 artikuluan xedatutako- en artetik.

3. Arlo horretan egin daitezkeen arau-hausteak Kirolaren Administrazio Auzitegiak zigortuko ditu, betiere Kirol Kontseilu Gorenaren presidentetzak eskatu ondoren.

4. Artikulu honen aurreko paragrafoetan edo aurreko artikuluan aipatuta ez dauden dopin-kontrol- etan parte hartzen duten pertson- ek ere zuhurtziaz erabili eta isilpean mantendu behar dituzte beren zereginetan ezagutzen dituzten datuak eta informazioak. Betebehar hori urratzea Kirolaren Administrazio Auzitegiak zigortuko du, betiere Kirol Kontseilu Gorenak eskatuta, eta dagokien kidego profesio- n- alei jakinaraziko zaie beharrezko diziplina- on- dorioak izan ditzan; halere, administrazio- zigorrik ezarri zaien gertaerei ezin izango zaie diziplina- zko zigorrik ezarri subjektu, gertaera eta oinarri berak dauden kasuetan.

54. artikulua. *Datuak lagatzeko baimena.*

Dopin-kontrol- ei buruzko datuak eta fitxategiak laga ahal izango zaizkie, Izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutako moduan, Espainia kide den eta kirol- esparruan dopinaren aurkako borrokan parte hartzen duten nazioarteko erakunde publiko edo pribatuei, Espainiak hartutako nazioarteko konpromiso lotesleek xedatzen dutenaren esparruan, edo estatistikak edo ikerketa- azterlanak egiteko.

### III. TITULUA

#### **Kirol-jardueran dopinerako erabil daitezkeen produktuak kontrolatzeko eta ikuskatzeko politika publikoak**

##### I. KAPITULUA

#### **Produktuak, sendagaiak eta nutrizio-osagarriak kontrolatzeko eta ikuskatzeko neurriak**

55. artikulua. *Kirolean dopina sor dezaketen produktuak adierazteko betebeharra.*

1. Lege honen aplikazio- eremuan egiten diren lehiaketetan parte hartzen duten taldeak eta klubak behartuta daude erregistro- liburu bat eramatera, erregelamendu- z zehaztuko diren baldintzetan. Liburu horretan modu zehatz eta frogagarrian jaso behar da zer produktu hartze- ko eman edo agindu zaien kirolariei, zer metodo debekatu erabili den, zer medikuk agindu edo baimendu duen hori, eta noiz eta nola egin den agindu hori.

2. Kirolariak, taldeak edo kirol- taldeak eta ordezkaten dituzten zuzendari atzerritarrak, kirol- jarduera edo -lehiaketa batean parte hartze- ko Espainian sartzen direnean, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari bidali behar dizkiote, behar den moduan beteta, hark finkatutako inprimakiak, jardueran erabiltze- ko daramatzaten produktuak, kopurua eta zein medikuk eman dituen zehaztuta.

Baldin eta autonomia- erkidegoko kirol- federazioek antolatzen badute kirol- jarduera edo -lehiaketa, dena delako autonomia- erkidegoaren esku egongo da era horietako betebeharrak eta haien irismena ezartzea.

56. artikulua. *Produktu jakin batzuen merkaturatzeari buruzko informazioa.*

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren laguntza eskatu ahal izango du kirolaren esparruan dopina eragin dezaketen produktuak -ekoizte- ko, banatzeko eta merkaturatzeko ziklo osoan- ezagutzeko beharrezko neurriak har daitez- en, haien berezko ezaugarriak eta

osasun publikoan izan dezaketen eragina direla-eta, lege honetan aurreikusten den kontrol-erregimena errazteko jarraipen berezia egin behar zaiela iritzita.

Elikagaien Segurtasunerako eta Nutriziorako Espainiako Agentziaren laguntza bera ere eskatu ahal izango du, salbuespen gisa.

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren edo autonomia-erkidegoen eskudun organoen arteko lankidetzeta-sistemen bidez gauzatuko dira ikuskatzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko neurriak, indarreko araudian ezarritako eskumen-esparruaren arabera betiere.

#### 57. artikulua. *Ikuskatzeko ahalmena.*

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek, Estatuko ikuskapen-zerbitzuek zein eskumena egotzita duten autonomia-erkidegoetako organoek, beren ekimenez edo Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak eskatuta, dopin-kontrollean aurkako emaitza analitikoa eman dezaketen produktuak eta gaiak gorde edo eduki ditzaketen botika-ontziak eta gainerako tresnak ikuskatu ahal izango dituzte, betiere Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua seigarren paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, hori aplikagarri den kasuetan.

Administrazioak zehatzeko ahalmena erabili ahal izateko, kontuan izango dira substantzia mota, unitate-kopurua eta justifikazio terapeutikoa, bai eta bakoitzaren lanbide-jardunari zuzenean lotutako gainerako gaiak ere.

Erregelamenduz ezarriko da botika-ontzien eduki onargarria, eta, berariaz, edozein larrialdi medikoren ondorio diren gertaerei erantzuteko beharrezko diren sendagai eta osasun-produktuak.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere zereginetan botika-ontzien eta lehen lerrokadan xedatutako gainerako tresnen gainean egiten dituen aduana-kontrolen emaitzen berri emango zaio eskudun organoari, erregelamenduz ezarritako moduan.

#### 58. artikulua. *Konfiskazioa.*

Kirolean edo kirol-jardueran dopina eragiteko gai diren substantzia eta produktuak eta xede horretarako erabiltzen diren tresna eta lanabesak konfiskatu ahal izango dituzte kasuan kasuko zehapen-prozedurak hasten dituzten administrazio-agintariak, prozedura horien barruko kautelazko neurri moduan edo horien aurreko neurri moduan. Bigarren kasu horretan, instrukzio-organismoak berretsi egin behar du neurri hori, espedientea izapidetzerakoan. Zehapen egokiak ezartzen direnean, neurri hori behin betiko bihurtu ahal izango da. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak ikerketa-xedeetara bideratu ahal izango ditu konfiskatutako elementuak.

## II. KAPITULUA

### **Kirol-jardueran dopina eragin dezaketen produktuak erabiltzeko baldintzak**

#### 59. artikulua. *Elikagaiak merkaturatzea eta erabiltzea.*

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziarekin elkarlanean, eta autonomia-erkidegoekin adostuta, sendagaiak ez badira ere kirolaren esparruan dopineko aurkako emaitza analitiko bat eragin dezaketen elikagaien gaineko informazioa eta publizitatea egiteko mekanismo espezifikokoak ezarriko ditu.

Berariaz, Espainiako administrazio-agintariak prozedura egokiak ezarriko dituzte Espainian sartzen diren eta lege honen esparruan jasota daudela jotzen diren elikagaiak deklaratzeko.

60. artikulua. *Kirol-jardueretara bideratutako establezimenduetan dopina sor lezaketelako kirolean debekaturik dauden gaiak dituzten produktuak merkaturatzeko berariazko debekuak.*

1. Lege honen ondorioetarako, dopina sor lezaketelako kirolean debekaturik dauden gaiak dituzten produktuak biltzea, merkaturatzea edo banatzea debekaturik egongo da, edozer modalitatetan, kirol-jardueretara bideratutako establezimenduetan, betiere halakotzat hartuta badaude lege honen arabera.

2. Halaber, aurreko paragrafoan zehaztutako produktuen kontsumoa bultzatzea ere debekatuta egongo da han aipatutako tokietan.

61. artikulua. *Publizitatea eta salmenta sistema elektronikoen bitartez.*

1. Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak arlo horretako iruzurrezko publizitatearen aurka eta, oro har, kontsumo hori bultzatzen duten publizitateko portaeren aurka borrokatzeko berariazko programa bat ezarriko du.

2. Espezifikoki, eta Estatuko Administrazio Orokorraren eskudun organoekin koordinaturik, produktu horiek Internet bidez eta salmenta elektronikoko beste bide batzuen bidez saltzeko eta merkaturatzeko kontrol-programa bat ezarriko da.

62. artikulua. *Osasun-langileek edo beste edonork kiroleko dopin-jardueretan parte hartzearen ondoriozko zehapenak.*

Lege honen 26. artikuluan kirol-lizentzia dutenentzat xedatutakoari kalterik egin gabe, osasun-profesionalek eta beste edozer profesionalek, baldin eta lege honi dagokion kirol-jardueraren esparruan dopina eragin lezaketen gaiak eta produktuak egiten, prestatzen, eskuratzen, laguntzen, agintzen edo ematen badituzte, edo kirolean debekaturik dauden edo erregelamenduz kanpokoak diren metodoak erabil daitezzen laguntzen badute, betiere jarduteko dagozkien arauetan eta lege honetan agindutako formalitateak betetzen ez badituzte, diziplina-erantzukizunean eroriko dira. Arestian azaldu diren jokabideak arau-hauste oso larritzat joko dira, eta beren elkargo profesionalen kasuan kasuko arauen arabera zehatuko dira.

Horrela zigortutako pertsonak ezin izango dute kirol- edo osasun-kargurik bete kirolarekin zerikusia duen edozer erakundetan, ezingo dute kirol-lizentziarik edo gaikuntza baliokiderik eskuratu, ezta kirol-lizentziak ekarritako eskubiderik ere, federazio-lizentziaren titularrak izan balira izango zuten desgaiakuntzako zehapenaren iraupen bereko aldi batez.

63. artikulua. *Informazio-sistema.*

1. Kirol-arloko dopinari aurka egiteari eta osasuna babesteari buruzko informazio-sistema bat sortuko dute Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak eta autonomia-erkidegoek, egoki den lankidetzako-organismoaren esparruan, kirolaren eta gorputz-jardueraren arloko eskumenak dituzten herri-administrazioen arteko elkarrekiko informazioa eta komunikazioa edukitzea bermatzearen. Organo horren barruan informazioaren helburuak eta edukiak hitzartuko dira.

2. Informazio-sistemak honako hauek ezagutzeko aukera emango du: dopina eragiteko gai diren substantziak eta kiroleko metodo debekatuak, abian jarritako eta zehapeneko diziplina-espeditenteetako datuak, hauteman diren substantziak adierazita, eta laborategietan egindako analisiak. Oinarritzko datu moduan, honako hauei buruzkoak txertatuko ditu: kirol-biztanleria, giza baliabideak eta baliabide materialak, egindako jarduerak, farmazia eta osasun-produktuak, finantzaketa eta lortutako emaitzak, bai eta kirolarien igurikimen eta iritziak ere, eta hori guztia kiroleko dopinaren aurkako borrokarri buruzko ikuspegi oso batetik.

Horretaz gain, kirolariaren osasuna babesteko eginiko kontrolak eta gainerako probak ezagutzea ahalbidetuko du, eta berariazko erregistro bat ere edukiko du herri-administrazio guztien arlo horretako zehapenak bertan jaso daitezzen.

Sistemaren barruan sexuaren aldagaia ere jasoko da kirolarien artean egiten diren estatistika zein inkestetan eta hartzen diren datuetan, eta emakumeen eta gizonen itzaropenen eta iritzien azterketa bereizia egingo du, genero-adierazleak erantsita.

3. Informazio-sistemaren barruan, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak adierazitakoa entzunda, eginkizun hauek beteko dira: datuen definizioa eta normalizazioa ezartzea, adierazleak hautatzea, eta informazioa osatzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak ezartzea. Sortutako informazioa ahalik eta fidagarriena izatea da horren guztiaren helburua.

4. Informazio-sistema bere erabiltzaileen eskueran egongo da (hau da, kirol eta osasun alorreko administrazio publikoak, kiroleko eta osasuneko kudeatzaile eta profesionalak, bai eta herritarrak berak ere), betiere Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren txostenaren ostean erabakitako eskuratze- eta zabaltze-baldintzetan. Nolanahi ere, sistemak formatu egokian eman beharko du informazioa, pertsona guztientzako diseinu-printzipioaren arabera, desgaituek eskuratzeko eta ulertzeko moduan betiere.

Abian jarritako eta zehapeneko diziplina-espeditetako datuak –laborategietan hautemandako substantziei eta egindako analisiari buruzkoak– espeditet horiek zerikusia duten organo eskudunen esku egongo dira, eta soilik haientzat izango dira eskuragarri. Beste antolakunde, pertsona edo erakunde batzuek datu horiek eskuratu nahi izanez gero, espeditetean parte hartzen duten guzti-guztien datu pertsonalak disasoziatu behar dira beti aurretik.

5. Autonomia-erkidegoek, Estatuko Administrazio Orokorrak eta tokiko erakundeek behar diren datuak emango dituzte informazio-sistemak mantentzeko eta garatzeko. Era berean, Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek eskubidea izango dute informazio-sistema osatzen duten datuak eskuratzeko eta edukitzeko, baina, betiere, beren eskumenekoak diren eginkizunetarako behar baldin badituzte.

6. Datuen tratamendua eta datuak uztea, informazio-sistamarako beharrezko datu pertsonalak barne direla, Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari atxikita egongo dira.

Lehen xedapen gehigarria. *Dopinaren aurkako erakunde nazionala.*

Dopinaren Aurkako Munduko Kodean eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren barruko araudian xedatutako ondorioetarako, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia dopinaren aurkako erakunde nazionaltzat hartuko da, eta esparru horretan dagozkion eskumenak gauzatu ditu.

Bigarren xedapen gehigarria. *Federazioen estatutuen eta erregelamenduen egokitzapena.*

Lege honetan eta, bereziki, II. tituluan, xedatutako ondorioetarako, Espainiako kirol-federazioek, gehienez ere sei hilabeteko epean, lege hau indarrean jartzen den egunetik aurrera, beren estatutuak eta erregelamenduak egokitu eta aldatuko dituzte.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia.*

Dopinaren Aurkako Estatuko Agentziak, lege hau indarrean hasten denetik aurrera, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia izena hartuko du. Erakunde hori Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema finantzatzeko eta betearazteko agentetzat hartuko da, Zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 3. artikulua ondorioetarako, betiere lege honen 7.1 eta 44. artikuluetan egotzita dituen eginkizunen arabera.

Laugarren xedapen gehigarria. *Indargabetutako organoak eta haien erreferentziak.*

1. Kirol Diziplinaren Espainiako Batzordea eta Hauteskunde Bermeen Batzordea ezetzatuta geldituko dira.



2. Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legean edo beste arau batzuetan Kirol Diziplinaren Espainiako Batzordearen edo Hauteskunde Bermeen Batzordearen aipamen guztiak Kirolaren Administrazio Auzitegi berriari egindakotzat joko dira.

3. Kirolaren Administrazio Auzitegiaren esku geldituko dira gaur egun Kirol Diziplinaren Espainiako Batzordeari eta Hauteskunde Bermeen Batzordeari dagozkien eginkizun guztiak eta baliabide materialak zein pertsonalak.

Lehen xedapen iragankorra. *Legea indarrean jarri aurretik egindako arau-haustea eta bidean dauden diziplina-prozedurak.*

Lege hau indarrean jarri aurretik egindako dopin-arloko arau-hausteei dagokienez, aurreko araudian xedatutakoa beteko da. Indarrean jartzen den egunetik aurrera egiten direnek lege hau jarraituko dute.

Kirolean dopina zigortzearen arloko diziplina-prozedurek, lege hau indarrean jarri aurretik hasi badira, aurreko araudia jarraituko dute, betiere interesdunak, bere borondatez, lege hau aplikatzea aukeratu ezean.

Bigarren xedapen iragankorra. *Dopin-kontroletarako gaikuntzak.*

Aurreko araudiaren babesean emandako gaikuntzek indarrean jarraituko dute lege hau indarrean jarri ondoren, harik eta horiek berriro behar diren arte, orduan lege honetan eta berau garatzeko araudian xedatutakora egokituko baitira.

Hirugarren xedapen iragankorra.

Kirol Diziplinaren Espainiako Batzordeak eta Hauteskunde Bermeen Batzordeak lehengo eginkizun berak izango dituzte Kirolaren Administrazio Auzitegia arautzen duten erregelamenduzko xedapenak indarrean jartzen diren arte.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

1. Indargabetuta geldituko da Osasuna babesteko eta kiroleko dopinaren aurkako azaroaren 21eko 7/2006 Lege Organikoa, baita Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 24. artikulua ere, Lege Organiko horren 23. artikulua p) eta q) idatz-zatiei eginiko erreferentziari dagokionez, eta berdin ere lege honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo txikiagoko arauen manu guztiak.

2. Halaber, Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 23. artikulua p) eta q) idatz-zatiak ere geldituko dira indargabeturik.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-gaikuntza.*

Espainiako kirol federatuaren interesetan eragiten duten alderdiak arautzeko Estatuak duen eskumenari, baita haren antolaketari berari buruzko manuak ematekoari ere, kalterik egin gabe, herri-administrazioen eta administrazio-prozedura erkidearen araubide juridikoaren oinarrien arloan Konstituzioaren 149.1.18 artikulua xedatutako moduan, lege hau Konstituzioaren 149.1.16 artikulua babesean ematen da, osasunaren oinarrii eta koordinazio orokorrari eta produktu farmazeutikoei dagokienez, manu hauek izan ezik:

a) 44. artikulua Konstituzioaren 149.1.15 artikulua babesean ematen da; Estatuak ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustapenari eta koordinazioari buruz duen eskumen eskusiboari buruzkoa da hori.

b) 45. artikulua Konstituzioaren 149.1.30 artikulua babesean ematen da; titulu akademikoak eta profesionalak eskuratzeko, emateko eta homologatzeko baldintzak arautzeko buruz Estatuak duen eskumen eskusiboari buruzkoa da hori.

c) 48.2 artikulua Konstituzioaren 149.1.31 artikulua babesean ematen da; Estatu-xedeetarako estatistikari buruz Estatuak duen eskumen eskusiboari buruzkoa da hori.

d) 52. artikulua Konstituzioaren 149.1.7 eta 18. artikuluen babesean ematen da, langile publikoen lan-erregimenari eta funtzionario publikoen estatutu-erregimenari dagokienean, hurrenez hurren.

c) 57., 58. eta 60. artikulua Konstituzioaren 149.1.29 artikulua babesean ematen dira; segurtasun publikoari dagokionez Estatuak duen eskumen eskusiboari buruzkoa da hori.

Azken xedapenetako bigarrena. *Lege honen izaera.*

Lege organikoaren izaera du lege honek, manu eta xedapen hauek izan ezik:

1-9 arteko artikulua –biak barne–, 2. artikulua eta 4. artikulua 2. paragrafoa izan ezik, izaera organikoa baitute horiek.

15. artikulua 4. eta 5. paragrafoak, 1-3 tarteko paragrafoak izan ezik, izaera organikoa baitute.

16. eta 17. artikulua.

18. artikulua, lehen paragrafoa izan ezik, izaera organikoa baitu hark.

19-40 arteko artikulua, 32. artikulua eta 33. artikulua izan ezik, izaera organikoa baitute haiek.

41-50 arteko artikulua, eta 52-53. artikulua.

55-62 arteko artikulua, 57. artikulua 1. eta 2. lerroak izan ezik, izaera organikoa baitute haiek.

Lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak.

Lehen, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorrak.

Xedapen indargabetzailea, 2. paragrafoa.

Azken xedapenetako lehena, hirugarrena, laugarrena, bosgarrena eta seigarrena.

I. eta II. eranskinak.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Erregelamendu bidezko garapena eta arauak onartzeko ahalmena.*

1. Ahalmena ematen zaio gobernuari lege hau garatzeko xedapenak eman ditzan.

2. Lege hau indarrean jartzen denetik hiru hilabeteko epean, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren estatutu berria onartuko du gobernuak eta lege honen arabera izan beharko du.

Araudi berri horrek Kirol Kontseilu Gorenaren egitura organikoa eta eginkizunak aldatzea ere jaso beharko du, lege honetan xedatutakora egokitzeko.

3. Gaikuntza ematen zaio gobernuari lege honen aurreikuspenen eraginkortasuna bermatzeko behar diren arau guztiak onar ditzan.

4. Sei hilabeteko epean, lege hau indarrean jartzen denetik zenbatuta, animalien dopinaren aurka borrokatzeko lege-proiektu bat aurkeztu beharko du gobernuak.

5. Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen edukia aldatuz gero, aldatu ahal izango dira lege honen I. eranskina eta II. eranskinean dagoen koadro argigarria, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren aginduaren bidez.

6. Sei hilabeteko epearen barruan, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta, gobernuak erregelamendu bidez garatuko ditu Kirolaren Administrazio Auzitegiaren osaera, antolamendua eta eginkizunak.

Azken xedapenetako laugarrena. *Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen aldaketa.*

Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 84. artikulua honela geratuko da idatzita:

«84. artikulua. *Kirolaren Administrazio Auzitegiaren sorrera.*

1. Estatu-esparruko organoa da Kirolaren Administrazio Auzitegia, organikoki Kirol Kontseilu Gorenari atxikia, zeinak, harekiko independentzia osoz, eginkizun hauek hartzen dituen bere gain:

a) Administrazio-bidean eta azken auzibidean bere eskumeneko kirol-diziplina arloko gaiak erabakitzea, baita kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko Legean adierazitakoak ere.

b) Kirol Kontseilu Gorenak eta bere Zuzendaritza Batzordeak eskatuta, diziplina-espeditenteak izapidetzea eta ebaztea, Kirolari buruzko Legearen 76. artikulua aipatutako kasu zehatzetan.

c) Espainiako kirol-federazioen gobernu-organoei hauteskunde-prozesuak zuzenbidearen arabera egiten direla zaintzea, berehala eta administrazio-azken auzibidean.

d) Araudi erregulatuazalean egozten zaion beste edozer.

2. Osaera, antolamendua eta eginkizunak erregelamendu bidez garatuko dira, gastuaren ahalik eta sinplifikazio eta murrizketarik handieneko irizpideei jarraiki. Edozelan ere, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuko printzipioa bermatuko da osaeran, arrazoi objektiborik ezean, betiere behar bezala arazoituta.

3. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera izapidetu eta ebartziko dira Kirolaren Administrazio Auzitegiaren ardurapean dauden espeditenteak, joko- edo lehiaketa-arauak urratzeak ekarritako ondorioei buruzkoak izan ezik, horiek berariazko kirol-arauak baitituzte.

4. Kirolaren Administrazio Auzitegiaren ebazpenek agortu egiten dute administrazio-bidea, eta kirol-federazioak betearaziko ditu, zeina horiek zorrozki eta eraginkortasunez betetzeaz arduratuko den.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.*

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 19. artikuluari 5. paragrafo bat erantsi zaio; honela egongo da idatzita:

«Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko Lege Organikoaren 40.4 artikuluan aipatutako pertsona guztiek izango dute zilegitasuna dopinaren arloko kirol-diziplinako gaitan ematen diren Kirolaren Administrazio Auzitegiaren ebazpenak administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren aurrean errekurritzeko.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Indarrean jartzea.*

Agindu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau egunera jarriko da indarrean».

Beraz,

Lege organiko hau bete eta betearaz dezaten agintzen diet Espainiako herritar eta agintari guztiei.

Madril, 2013 ekainaren 20a.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,  
MARIANO RAJOY BREY

## I. ERANSKINA

### Definizioak

1. (Kirol) gertaera: parte hartzeko eta berau antolatzeko arauak hartzen dituen kirol-erakunde bakar baten zuzendaritzapean garatzen diren lehiaketen seriea edo zatia. Horrelakoak garatzen diren lurralde-eremuaren arabera honela sailka daitezke:

– Nazioarteko gertaera: Nazioarteko Batzorde Olinpiarren, Nazioarteko Batzorde Paralinpiarren, nazioarteko federazio baten, gertaera handien antolatzaileen edo nazioarteko kirol-erakunde baten zuzendaritzapean antolatutakoa.

– Estatuko gertaera: Espainiako kirol-federazioen egutegien barruan jasota egonik ere, nazioarteko maila duten kirolarien parte-hartzeagatik nazioarteko gertaeratzat jotzen ez dena edo hura nazioarteko federazioek antolatzen dutenean edo egiteko agintzen edo egitea baimentzen dutenean.

2. AMA: Dopinaren Aurkako Munduko Agentzia. Suitzako Zuzenbidearen arabera sortu eta zuzendutako fundazioa.

3. Funtsezko laguntza: 27.3.c) eta 36 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, funtsezko laguntza ematen duen pertsona batek: (1) adierazpen idatzi eta sinatu baten bidez dopinaren aurkako arauen urraketan gainean duen informazio guztia jakinarazi beharko du, eta (2) informazio horrekin zerikusia duen edozer kasuren gaineko ikerketan eta hartzen diren erabakietan erabateko laguntza eman beharko du; horren barruan sartzen da, adibidez, auzialdi batean lekukotasuna ematea dopinaren aurkako erakunde batek edo adituen auzitegi batek horrela eskatuz gero. Emandako informazioak, halaber, sinesgarria izan behar du eta irekitako kasuaren zati garrantzitsu bat izan edo, kasurik zabaldu ez bada, zabaltzeko adinako oinarri nahikoa eman.

4. Kodea: Dopinaren Aurkako Munduko Kodea eta haren eranskinean interpretatzeko jasota dauden definizioak.

5. Batzorde Olinpiar Nazionala: Nazioarteko Batzorde Olinpiarren onartutako erakundea.

6. Lehiaketa: Proba bakar bat, partidu bat, partida bat edo kirol-lehiaketa jakin bat.

7. Kontrola: Dopina kontrolatzeko prozesu globalaren zati bat; haren baitan kontrolak planifikatzea, laginak biltzea, laginak manipulatzeko eta aztertzea, eta laborategira bidaltzea hartzen ditu.

8. Dopinaren kontrola: Kontrolen plangintzatik aurrera egiten diren izapide guztiak, baita tarteko prozesuen urrats guztiak ere; hala nola lokalizazioari buruzko informazioa ematea, laginen bilketa eta manipulazioa, laborategiko azterketak, erabilera terapeutikoko baimenak, emaitzen kudeaketa eta ikustaldiak.

Egiteko moduagatik honelakoak izan daitezke:

Ustekabekoak: Kirolariari aurretik ohartarazi gabe egiten den dopin-kontrola; horrelakoetan kirolariarekin batera norbait egoten da beti jakinarazten zaionetik lagina eman arte.

Bideratuak edo zitazio bidezkoak: Kirolariak hautatzeko sistema honek ausazko inolako oinarririk gabe erabakitzen du momentu jakin batean zein kirolari egingo zaizkion kontrolak.

9. Unescoren konbentzioa: Kiroleko dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa, Unescoren 2005eko urriaren 19ko Biltzar Nagusiaren 33. bilkuran hartutakoa; Konbentzioa sinatu duten estatuek eta Kiroleko dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa sinatu duten alderdien Konferentziak bere egindako zuzenketa guztiak hartzen ditu barnean.

10. Talde-kirola: Lehiaketa batean jokalaria ordezkatzea baimentzen duen kirola.

11. Banako kirola: Taldekoa ez den edozer kirol.

12. Kirolaria: Nazioarteko edo Estatuko mailan kirol batean jarduten duen edozer pertsona, baita edozer sinatzailearen edo kodea onartzen duen beste kirol-erakunderen baten jurisdikzioari atxikita dagoen kiroleko beste edozer lehiakide.

13. Nazioarteko mailako kirolaria. Lege horren ondorioetarako nazioarteko mailako kirolaritzat hartuko dira nazioarteko federazio batek edo hainbatek jarraipen-talde bateko kide izendatutako kirolariak.

14. Dibulgazio publikoa edo jakinarazpen publikoa: Herritarrei oro har edo artikuluan xedatutakoaren arabera jakinarazpenik jaso ezin duten beste pertsona batzuei informazioa jakinaraztea edo zabaltzea.

15. Gertaeraren iraupena: Gertaera baten hasieraren eta amaieraren arteko denbora, gertaera horretaz arduratzen den erakundeak xedatutakoaren arabera.

Lehiaketan: aldia zenbatzen hasten da kirolariak parte hartu behar duen lehiaketa baino 12 ordu lehenagotik lehiaketa hori amaitu eta harekin lotutako laginak biltzen diren arte.

16. Faltsutzea: Legez kontrako xedeekin edo legez kanpoko moduan aldatzea; emaitza baten gainean eragin desegokia izatea; emaitzak aldatzeko edo prozedura normalak saihesteko asmoz legez kontrako oztopoak edo trabak jartzea, engainatzea edo iruzurrezko edozer ekintzan parte hartzea edo iruzurrezko informazioa ematea dopinaren aurkako erakunde bati.

17. Jarraipen-taldea: Nazioarteko federazio bakoitzak edo dopinaren aurkako erakunde nazionalak zehaztutako goi-mailako kirolari-taldea; horiek, halaber, kontrolak izan behar dituzte lehiaketan eta lehiaketatik kanpo nazioarteko federazioaren edo dopinaren aurkako erakunde nazional jakin horren kontrol-plangintzaren barruan. Nazioarteko federazio bakoitzak jarraipen-taldean bildutako kirolarien zerrenda argitaratu beharko du, dela izena adierazita, dela argi eta garbi zehaztutako irizpide espezifikoak ezarrita.

18. Saio edo ahalegina: Dopinaren aurkako legearen arau-hauste bat egitea helburutzat duen ekintza planifikatu baten barruan funtsezko urratsa den borondatezko jokabidea.

19. Debekatuta dauden gai eta metodoen zerrenda. Zerrenda horrek debekatuta dauden gai eta metodoak adierazten ditu.

20. Markatzailea: Debekatutako gai bat edo metodo bat erabili izana adierazten duen konposatu bat, konposatu-talde bat edo parametro biologiko bat edo hainbat.

21. Adingabea: Adin-nagusitasunera iritsi ez den pertsona fisikoa.

22. Metabolitoa: Biotransformazio-prozesu baten bidez sortutako edozer gai.

23. Debekaturiko metodoa: Debekaturik dauden gaien eta metodoen zerrendan halakotzat jotako edozer metodo.

24. Lagina: Dopina kontrolatzeko bildutako edozer material biologiko.

25. Dopinaren aurkako erakundea: Dopinaren aurkako kontrol-prozesuaren edozer zati hasteko, gauzatzeko edo bete dadin eskatzeko arauak hartzeaz arduratzen den sinatzaile bat. Horren barruan, esaterako, hauek sartzen dira: Nazioarteko Batzorde Olinpiarra, Nazioarteko Batzorde Paralimpiarra, kirol-gertaera handiez arduratzen diren eta beren ardurapekoak diren gertaeretan kontrolak egiten dituzten beste erakunde arduradun batzuk, AMA Munduko Dopinaren Aurkako Agentzia, nazioarteko federazioak eta dopinaren aurkako erakunde nazionalak.

26. Dopinaren aurkako erakunde nazionala: Herrialde bakoitzak dopinaren aurkako arauak hartzeko eta betearazteko, laginak biltzeko, emaitzak kudeatzeko eta ikustaldiak egiteko nazio mailan erakunde arduradun nagusi izendatutako erakundea edo erakundeak.

27. Parte-hartzailea: Kirolari edo kirolariak laguntzeko langile oro.

28. Pertsona: Pertsona fisiko bat, erakunde bat edo beste entitateren bat.

29. Kirolariak laguntzeko langileak: Edozer entrenatzaile, prestatzaile fisiko, kirol-zuzendari, agente, taldeko langile, funtzionario, osasun-langile edo paramediku, aita, ama edo kirol-lehiaketetan parte hartzen duten edo haietarako prestatzen diren kirolariek lan egiten duen, haiek artatzen edo laguntzen dituen beste edozer pertsona.

30. Edukitza: Edukitza fisikoa edo izatezkoa (pertsonak debekaturiko gaiaren edo metodoaren edo debekaturiko gaia edo metodoa dagoen tokiaren kontrol eskusiboa badu baino ez da horrelakorik xedatuko); nolana ere, baldin eta pertsonak ez badu kontrol

esklusiborik debekaturiko gai edo metodoaren gainean edo berau dagoen tokiaren gainean, izatezko edukitza dagoela xedatu ahal izateko, pertsonak debekaturiko gaia edo metodoa zegoenaren berri eduki behar zuen, baita horren gaineko kontrola izateko asmoa ere. Horrenbestez, edukitza hutsagatik ezingo da dopinaren aurkako legearen arau-hausterik egon, baldin eta, dopinaren aurkako legearen arau-hauste bat jakinarazten dion edozer jakinarazpen jaso aurretik, pertsonak neurri zehatzak hartu baditu frogatzeko gai edo metodo hori edukitzeko borondaterik ez duela eta esplizituki adierazi badu dopinaren aurkako erakunde baten aurrean hari uko egin diola. Definizio honetan jasotako aurkako beste edozer adierazpeni kalte egin gabe, debekaturiko gai edo metodo bat erostea (baita bide elektronikoak edo bestelakoak erabilita ere) edukitza da erosleari dagokionean.

31. Aurkako emaitza analitikoa: AMAk egiaztatutako laborategi baten txosten bat, zeinak, Laborategietarako Nazioarteko Arauarekin eta lotutako beste agiri teknikoekin bat etorrita, lagin batean debekaturiko gai bat edo haren metabolitoak edo markatzaileak daudela edo debekaturiko metodo bat erabiltzearen aztarnak daudela zehazten duen.

32. Ezohiko emaitza: AMAk egiaztatutako laborategi batek edo beste erakunde batek eginiko txostena, zeinak, Laborategietarako Nazioarteko Arauaren edo horri lotutako agiri teknikoen arabera, ikerketa zehatzago bat behar duen aurkako emaitza analitiko bat dagoen erabakitzeke.

33. AMAk ezarritako informazio-sistema: datu-baseak kudeatzeko tresna bat da, webgune batean kokatua, informazioa sartzeko, biltzeko, partekatzeke eta txostenak egiteko interesa duten aldeei eta AMARI, betiere datuak babesteari buruzko legeria betez, dopinaren aurkako jardueretan laguntzearren.

Sistema horrek izen hau du egun: «Anti-Doping Administration and Management System» (ADAMS).

34. Gai espezifikokoak: Debekaturik dauden gaien eta metodoen zerrendan halakotzat jotako edozer gai.

35. Debekaturiko gaia: Debekaturik dauden gaien eta metodoen zerrendan halakotzat jotako edozer gai.

36. Trafikoa: Kirolari batek, kirolariari laguntzeko langileek edo dopinaren aurkako erakunde baten jurisdikzioaren mende dagoen beste edozer pertsonak debekaturiko gai edo metodo bat saltzea, ematea, garraiatzea, bidaltzea, banatzea edo banakatzea (dela fisikoki edo bide elektronikoz edo beste bideren baten bidez) hirugarren bati; edozelan ere, definizio horren barruan ez dira sartzen osasun-langileek xede terapeutiko jator eta legeletarako erabilitako gai debekatu batekin lotuta egiten dituzten fede oneko ekintzak, ez eta lehiaketatik kanpo baimenduta dauden gai debekatuekin lotutako ekintzak ere, betiere egoerak osotara begiratuta ez badu frogatzen debekaturiko gai horien helburua ez dela xede terapeutiko jator eta legal bat.

37. Erabilera: Debekaturiko gai bat edo metodo bat edonola erabiltzea, aplikatzea, irenstea, injektatzea edo kontsumitzea.

## II. ERANSKINA

### Berrerortzea

#### Arau-haustek

1. arau-haustea	2. arau-haustea					
	ZM	EKHK	ZEA	ZE	ZL	TRA
ZM	1-4	2-4	2-4	4-6	8-10	10-bizi osoa
EKHK	1-4	4-8	4-8	6-8	10-bizi osoa	bizi osoa
ZEA	1-4	4-8	4-8	6-8	10-bizi osoa	bizi osoa
ZE	2-4	6-8	6-8	8-bizi osoa	bizi osoa	bizi osoa
ZL	4-5	10-bizi osoa	10-bizi osoa	bizi osoa	bizi osoa	bizi osoa
TRA	8-bizi osoa	bizi osoa	bizi osoa	bizi osoa	bizi osoa	bizi osoa



ZM [Zehapen murriztua gai espezifikoaren erabileragatik, 10.4 artikulua arabera]; dopinaren aurkako arauen urraketa zehapen murriztu baten bidez zigortu da edo zigortu beharko da 10.4 artikulua arabera; izan ere, gai espezifiko bati zegokion eta artikulua horren gainerako baldintzak betetzen ziren.

EKKH [Ez adieraztea kirolariaren kokalekua edo huts egindako kontrolak]; dopinaren aurkako arauen urraketa 10.3.3 artikulua arabera zigortu da edo zigortu beharko da [Ez adieraztea kirolariaren kokalekua edo huts egindako kontrolak].

ZEA [Zehapen murriztua ez dagoelako zabarkeriarik edo erru adierazgarririk]; dopinaren aurkako legearen arau-haustea zehapen murriztu baten bidez zigortu da edo zigortu beharko da 10.5.2 artikulua arabera; izan ere, kirolariak frogatu du ez dela bere aldetik zabarkeria edo erru adierazgarririk egon artikulua horretan zehaztutakoari jarraiki.

ZE [Zehapen estandarra 10.2 edo 10.3.1 artikulua arabera]; dopinaren aurkako legearen arau-haustea bi [2] urteko zehapen estandar baten bidez zigortu da edo zigortu beharko da, 10.2 edo 10.3.1 artikulua arabera.

ZL [Zehapen larriagotua]; dopinaren aurkako legearen arau-haustea zehapen larriagotu baten bidez zigortu da edo zigortu beharko da 10.6 artikulua arabera; izan ere, dopinaren aurkako erakundeak frogatu du artikulua horretan ezarritako baldintzak betetzen zirela.

TRA [Gaiekin trafikaztea edo trafikazten ahalegintzea eta gaiak administratzea edo administratzen saiatzea]; dopinaren aurkako legearen arau-haustea 10.3.2 artikulua arabera zehapen baten bidez zigortu da edo zigortu beharko da.